KOLDO IZAGIRRE

EGARRI EGUNAK PORTUALDEAN

KOLDO IZAGIRRE

Egarri egunak portualdean

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3,54 €.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2011 Koldo Izagirre
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2011ko abendua
Edizio hau: 2011ko abendua

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

gaur amets egin dugu
enbata haundiak joko du bihar

(GazteArtearen pintaketa
upeldegi zaharrean, 1977)

–1–

Laguna hausten den hilobiak leher egiteraino zurruta kantua egin litekeen mahaia izan behar luke, zer axola plastikozko lore zikin hauek dardaraka ontzi jausi zartatuaren lepoan, zer axola gure mozkorraldiaren puskailak aldare profanatu batean, zer axola du, bizitza hau ez da edangarria. Horregatik datza gaztaro bat hemen, mesosferaren hondorainoko zuloan gordea. Gurutze beltzean zuri, gerrialdeko arropa pudikoaren kolorea gorputz osora hedatua, gezurrezko marmol molde bakarreko santuginaren ore merke, gurutziltzatu baino lehen urkatuak irudi burua eskuin aldera makur, tatuaia politiko onartezinen erakustegi izan balira bezala daude garbitu berriak antxeten zirinek oraino ugertu ez dituzten tamaina bereko kristo errepikatu hauek. Erakusketa beti garaikide honen atzean, gauez, hegoak jotzen duenean errazago, umetan beitatzeko zizareen bila harrotua egiten genuen basatza hartan eraiki tramankulua hodeietaraino zuzen, enborraren zementua marra horizontal zuri-gorri zabalez nabarmendua, Bretainiako farola bat bezain gotor gure morrontza sexualaren sinboloa ikuskizun.

Bi mila milioi watteko zakila.

Hiru mila tona karbono dioxidoko semena urtean.

Jainkoa hila zen, Nietzsche ere bai.

Zentral termikoaren argiak xahartzen hasi aitzin zabaltzen du eguna ezkerrera ageri den Aiako Harriaren hiru gailur soslaituen ostetik, ipar zekenari babes dauka mendi magala eguzkialde, biziak ere mendeko dauzka hilerriak, bizien izerdiak suntsituak eraikiak. Gain honetarik eskua luzatuko banu ukitu eginen nuke, litekeela ematen du, baina paratu behar zen pankarta puska hura goi hartan oroz urrun, oroz bakar segurtasunezko langak iragan erreflektoreen azpian abiatu guarden ibiliak saihestu tximiniarainokoa labirinto metalikoan barna asmatu beheko heldulekuraino iritsi berrehun bostehun edo mila eskala igan, ez, gehiago, izterrak gogortu arterainoko guztiak. Argazki hura edukitzeagatik, esan liteke. Xabierrek lotu zuen mezua han, Greenpeacekoek berea baino zatiaz lehen handi gorago, arrunt bestelako leloz. Gero, jaitsieran, burdina guztiak gantzutu zituen. Ontziola zaharreko komunen txabolan zain geundenok agindu egiten genion ahapetik “Uztak hori, jaitsi hadi lehenbailehen!”, baina hantxe seguruen, tximiniako armiarma, motxilan eraman zuen bikea heldulekuetan itsasten, ondo-

koa zen gaitzena, sartzeko egin zuena atzera errepikatzea esturan oztopozka hasi gabe. Biharamunean portualde osoan ikustekoa eguerdia arte goitik behera zintzilik, haizerik ez, Teherango gazteak bezain irakurgarri gure dazibao harroa, argiaren okupazioa, gazteon kirola. Aitor liteke, zer. Ezin konta ahala afixa eskualdeko herrietan, aldizkari askotan agertuko zen aldarri hura hurrengo hilabeteetan, Bilbon Bartzelonan Bordelen. Portualdeko Mostra egin liteke garai hartako gure argazkiekin, termikako pankarta leiho tirokatuak zimitorioko muralak ibaiaren hondoko tresneria kargadero zaharra gure aurpegi kopetazimur alegera haiek, gure gorputz egarri haiek.

Iraina ahoan.

Bizarlabanaren zauri estetikoa.

Haragi hau ere banaiz, George Harrison!

Beherago, zuhaitzek ezkutatzen ziguten badian ontziolako motorak langilez betea joan behar zuen ordu hartan kai transatlantikorantz jornada amaiturik, atako bandarako maniobrak egiten ariko zen ferrya bere azken bidaian. Hori ere egin zuen norbaitek, ferry linea bat sortu hemen, zein etorriko zen gure herrira Southamptondik? Kantari hasi ziren denak, kantari hasi ginela denok esan behar nuke, Gorka, Xabier,

Txurdo, neskak, zenbat neska hemen ere, Garbiñe, Maitane, denak oraintasun batean, gure belaunaldia, inozoa sentibera koldarra, bihotz onekoa, nirea, zurea, zer, zer egiten diat nik malkotan.

Froga ezazu badela bizitza bat hil aurretik.

Birjintasuna ez da inoiz galtzen.

Errealitate hau ez liteke kantagarria izan.

Ni neu aldendu nintzen orduan, harritxintxar honetan bertan apo korrokan, ez dute asfaltatu, eginen dute hurrengo hauteskundeen bezperan, hilerriko kaleak asfaltatu, eguzkiak bigundutakoan galipotak heriotzaren usaina eman dezan, aita ehortzi genueneko usain huraxe, nondik etorria, umea nintzeneko beste zerraldoren batetik menturaz. Jalgi egin nintzen kantu hartarik orain aitaren panteoi ingurutik aldenduko naizen bezala, Bixarberde iluneneko putzuan zegoen engoitik, neure burua kendu nahi nuen zeremonia infantil despedida hunkigarritik zamagabe, gertatu mingarri haietarik urrundu, Aleksandra nire akordura ekar zezakeen demendrenetik eten, haren aztarnak ezabatu gure auzo liberatu guztietan. Otoitzean? Zelataka? Zer ari haiz, mezu gakotuak interpretatzen harriko abizen galego-euskaldunetan? Larruzko zamarra horrekin bateriajolea edo, neure artean, kontzertuondo-

ren batean agurtuko nuen inoiz Bixarberderekin solasten nintzela. Agur aita, hor zaude, zaude bai ordu estrak sartzen zeure mandrinadora maitean beti hanpatu zintuen *Propiedad de* patetiko horren azpian hezurgorri, “neskaren bat gonbidatzeko” dirua ematen zidan izebaren aldamenean. Burdina herdoilduak horma artesituak edonon eskultura berrien inguruan. Blokezko harresi berria egina zuten egun haietan sarrera gotikoaren inguruan. Orain apaizen batek R.I.P. zabar zizelkatua dauzkaten plaka metalikoak josi eragin ditu hiru arkiboltako uztai puntadunaren alde banatan. Argazkia egin diot sakelako telefonoarekin, maitagarria zait arte garaikidea.

Egia ez da metafisikoa.

Oinarria ez da zalantza.

Atzo paretak txiza egiteko ziren.

Kantuzale haietarik zenbatek ulertuko ote zuten egiten ari zirena gure lehen hilobiratze publikoa zela, gure belaunaldiaren aurreneko gerlari eroriaren omenaldia askatasun artistikoaren sinboloa bizitza molde berri posibleen esploratzailea, guk infernua ikertzera bidali borrokalaria. Gisa batez, Aleksandrak ere egina zuen bestelakoa nahi zukeen munduaren ezagutza: gu, mutilok, mutil futbolariok zurrutariok ameslariok,

emakumearen beldur bizitzeko prest geunden proletarioen ume inozook.

Arnasa ezin da gerorako utzi.

Nire burua ukatu gozotasunari.

Neumatiko sutuaren usain suspergarria.

Multzo bat zegoen bide bazterreko auto ilararen ondoan pipatzen, gizonezkoak, gazteak helduekin nahaste. Ondotik pasatu nintzen herri aldera adio eginez. Dodge-Dart ederrari beha geratu nintzen pauso batzuetara.

– Ez zizkioagu zulatu, hustu besterik ez.

Argitasunak zor izan balizkidate bezala, irribarrez baina. Lehorrera ekarri yate bat, lur jotako mekanika bikain hura.

– Abarkak egiteko ebakitzen badizkiozue ere!

– Gure patroiarena duk.

Ikustekoa zen Bixarberderen etxe ondoan, lainotuan ere dirdiraka lorategitik atarirainoko sasi-tuneletik malkotzen ziren glizinien azpian gabarra margotu hura gure herrian, Dori-Eneari gure herria esan bageniezaioke.

– Semea lurperatu dik oraintxe.

– Gu ere lurperatu egin nahi gaitik.

Oiartzungo Herri Gaztediko lokalean ibiltzen ziren langile industrialetakoa zen, buruzagia, ona plazako asanbladetan, pazientzia handiz leziatzen zuen entzulea demokrazia zuzenerako, begiramenez hartzen zituen iritzirik ergelenak. Troskista, aberriaren etsai bat.

– Jendea kontra jarriko zaizue, jende asko etorri duk.

Orri bat luzatu zidan.

– Gutako bat zagok hor barruan, irteeran orriak banatzeko. Ez zaizkiguk kontra jarriko. Lokauta egin dik, hiru hilabete ordaindu gabe utzi gaitik kalean urdakume horrek.

GazteArtearen pintaketetarik ateratako esloganak zeuzkan, “Gure lepotik gizentzen dute lepoa!”, “Hango edo hemengo, langile denok herribateko!”. Testu nagusia erdaraz zegoen, Alberro jaunak zerabilen jokamoldearen laburpena, Euskal Herriko patronalaren eredu jatorra.

– Gurpilak hustu, pintaketa egin... Bietarik bat alferrikakoa duk.

– Bizarra utzi behar al duk hik ere?

– Euskadi salbo ikusi arte.

“Lapurra” ari ziren margotzen spray zuriz beiradura Dodge-Dartaren alde banatan.

– Etxeratzen delarikan pintaketa gehiago ikusiko dik.

– Morroi bat ekarri dik, larruzko zamarra beltza zeramak.

– Txoferrarekin zabilek orain.

Urrats dolutuak berriro hilerritik, dozenaka urrats oroitzapenak ezin oinpetuz, bazetozen urrats dolutuak apo samaldaren karraska.

Aleksandra ez, hura ez zen azalduko.

Non ote zinen?

Zamako handia Facal №7 txikiaren atoian ikusten nuela bilduko nintzen zuregana, “Ezagutzen ez? Filmaren azken planoan uretan urrunduz doan burua naun” esanen nizun aieru harroan, azken enea tximeletaren vibrato, abesti pesimistei buruzko solasaren atariko.

Pankarta bat hedatu zuten, alderik alde hartu zuten bidea mendia ilunabarra langile azpikotu haiek. Zigarroak jaurti zituzten denek, ugazabaren begietara esku biek lanean azaldu behar zuten agidanez, menderazioaren adierazgarri inkontziente bat, zapaltzen zituzten ilintiak baino zapalduagoko herrijendearena.

– Lángileók ez gará merkántziá!

Bertan geratu nintzen, afixetan argazkitan albistetan betikotu ez zituzten langile barrubako haien ondoan paketeko azken Stuyvesanta suturik, bulegoetako epelak bertan utzirik sugearena eginez grebara bortxatu beharrean etortzen zitzaizkigun beheko tornero-ekin galdaragileekin urtzaileekin batu nintzen, gure oroimen sozialaren hondoan iltzatu zitzaizkidan oihu haien erritmo primarioak bildua, filologoek jasoko ez zuten ahozkotasun noblea dastatzen.

Ikara elektriko bat bizkarrezurrean goiti.

Gure zakil lainezartuak pankarta bana zintzilik.

Gure gorputz biluziak zelula iraultzailez beterik.

– Horrek ez zaukak xentimorik, izan balu herriko banda kontratatuko zian semea zenbat maite zuen erakusteko.

– Makinaria atera dik lantegia itxi baino lehen, gauez.

Zerraldo hartan egon edo Londongo morgeren batean, Bixarberdek lortua zuen zegokion klaseari ihes egitea. Dimentsio jasoagoa ematen zioten bere ehorzketari pankartak, oihuek, musikan biziko zela erabaki zuenez geroztik sartu ez zen Dodge-Dart hondojoak. Garai bat bururatzen zuen gure lagun gorrotatu miretsiaren heriotzak.

Nolakoa ote zara zu, gutaz geroztikako Aleksandra?

Oinez igotzen ote dituzu orain ere seigarreneko terrazadunerainokoak?

Horixe izan zen pentsatu nuena jendea burumakur iragaiten zela pankartari behatzeko lotsaturik, zeremoniaren akordu gozomina ozpinduko zuten oihuak deitoratuz hasieran, gero zer gertatzen zen zer egin behar zuten ez zekitela irain mehatxu zarpatikoratze kalapita hartan.

– Zuek, zuek...! Ez duzue ezer errespetatzen!

Gaztelaniazko erantsi luze bat, epitetoak.

– Fernando, mesedez!

Orriak pankarta ostetik gorantz hegatzen trufagarrizko malutak lurreratzeko Fernando Alberro jaunaren Dori Salaberria emaztearen buru lepo arropa ilunetan, hartzen du idatzi amorragarri haietarik bat bi bost, langileok, langileok idatzi baino ez dute egiten orain, besterik ez daukagu, irakurri ez, ikusi egin zuen, paperak dardara egiten zuen esku hartan, mazpildu zuen hitzak xukatu beharrez, pausoa eman zuen oihuka jarraitzen zutenengana, guregana, handik, lehen pausotik askatu zuen bere kolera burgesa.

– Hau da engainatzen zaituztena! Honek manipulatzen zaituzte!

Euzkadiren etsaiarengana atzamarra luzatuz, bere burua salatzen zuela ohartu gabetarik. Taxi bat heldu zen, larruzko zamarra beltzekoak belarrira egin zion.

– Nola?

Beste hiru pauso, ausardia kemena bularra, begiak malkotan itsatsi zion atzaparra pankartari. Bernazakian hartu zuen ostikoak makur laga zuen, algara nork edo nork nire ondoan, ez luze, zer izan da, tiroak, tiroka ari da, kukutu egin ginen bata bestearen gerizan hautsa sudurretara.

Elkar biluzterainoko borroka.

Ikara elektriko bat bizkarrezurrean beheiti.

Lagunekin edan, edan, asegaitzak bihurtzeraino.

Zamarraduna ari zen hodeietara, Fernando Alberroren emaztearen garrasiak bezala. Gure haragien magmara noratu zuen gero hankak tinko, esku biak burdinan. Kristo hurbildu zitzaion une hartan, hilerri honetako gurutzeren batetik jaitsi zen, uretan oinez bezain airoso egin zuen lasai gorputzikara anabasa hartan odola ikusi baino lehen txiza gozoa etorri zitzaiolako bizirik utzi gintuen legionario harenganaino.

– Gorde ezazu hori, arren.

Sakondura tristeenetik zetorren durundioa zen ahots deitoragarri hura orduan, Gorkarena, nondik bestela.

– Apaiz puta bat haiz, Luis! Apaiz puta bat izango haiz beti!

Bixarberderen gurasoak taxian aldendu zirelarik isiltasun sorra hedatu zen han, panfleto zapalduak, Dodge-Dart harrogabetua, guregana egiten zuen atzamarra, pistola, dena egin zitzaidan eldarnio hutsa, ez zela deus gertatu, gure aitzindaria Londonen zegoela bere hirugarren diska grabatzen, Gorkak ez zuela besoa nire bizkarreko kakoan eskegi laster hegemonikoa izanen zen sindikatu bat ari zela sortzen esateko, gure buruen gainetik amore leunean iragaiten ziren hirurogei mila volten marrumak ez ninduela zorabiatu luze gabe lehertu behar zuen sargoriaren morse etenezinean.

–2–

Denok irakurtzen genuen orduan denok marrazten denok margotzen denok kantatzen, baten batzuek idazten. Bizitza berritu beharra geneukan, diktadura politikoak beste diktadura asko bermatu zituen, gizonezkoena esate baterako, gizonezko kontzientziadunona. Gure aurkako panfletoak idazten zituen Aleksandrak, izen huraxe hartu zuen, Александра , burua zurdamotz uzteko kendu ilajearekin batera jaurti zuen zaborretara familia liburukoa, ageriko gerrilla baterako nortasun berria hartuak geunden denok, bestelako Euskal Herri bateko toponimo ibiltariak ginen. Txurdok umetako izen komantxe arapajo kiowa txeiene haiek hartu behar genituela berriro errepikatu zuen maiz: arte laborategi bana gure gorputzak. Emakumearen lehendabiziko lotura gona zela, bigarrena bularretakoak zirela, gizonezkoek asmatu jantzi haiek, esan zuen Aleksandrak “Emakumea, familia, sexualitatea” izenarekin antolatu zuen aste feministako hitzaldietarik batean. Moila transatlantikoan paperolarako egurra deskargatzen zuten bafore sobietikoren batetik hartuko zuela izen berria, kapritxoa neskarena. Gero ikasi ge-

nuen nondik norakoa, Gorkak argitu zigun, beharrik, inork Aleksandrari berari xalo galdetu baino lehen. Brankan Александра Михайловна Коллонтай idatzia ekarriko zuen baforearen esperoan egon ginen, baina puntaletako garabilarietan debiletako makinistetan atrakadetako ofizialetan zetozen Kollontaiak, hori aitortu egin behar zitzaien sobietikoei, emakumezko marinelak zeuzkaten bakarrak ziren, ez zitzaien ardura munduko zamaketariek marmarrean jardutea, komunismoak zapaldua zaukak emakumea, behazak, emakumea horrela, gizonezkoen artean, lan horietan. Non é traballo para unha muller. Mahoizko praketan gurea ere, gonaren loturarik ez, baina ez genizkion bularrak dingilian nabaritzen praken gainetik kamisoi laburrarena egiten zuten atorra koadratu lasai haien azpian.

Akabatu eginen haugu, Paulov!

Erraiak uluka txirrina entzundakoan.

Gure zakil lainezartuak amorru bakarrean.

Altxatzera egin nuen baina besotik heldu ninduen Gorkak alde egiten banuen lekua utziko nuela, behatzeko nor zetorren. Bai, lekua uzten banuen jesarri

eginen zen, berriketan hasiko zen ezer gertatu izan ez balitz bezala, bertan gelditzen banintzen haren zurikeriak entzun beharko nituen ordea, ezin eramana. Heldu zen, uste dut inork ez ziola begitartea eman, zimitorioan egina geneukan hormamargo gaitzari beha jarraitu genuen, langileriaren nekeak patronalaren ankerra elizaren jokabidea. Aleksandra detaileak hartzen ari zen bere Leica M4 harekin. Irudi haiei beha jarri zen Luis ere.

– Polita dago gure eliza oraintxe, kanpoan santuak.

Dena asimilatzen zuen gibel hark.

– Deabruak dauzkatela aldamenean! Horregatik dira santu, deabruen munduan bizi direlako!

Gorkak tu egin zuen plazara, Luisen ukondoaren ondotik iragan zen karkaxa zementua ilundu baino lehen.

– Ez al dakizue? Langileak antolatu egin ziren, batzorde bat izendatu zuten jainkoarengana jotzeko. Behe horretan barrikada ipini diagu, hi zer aldetan hago? Orduan jainkoak definitu beste erremediorik ez zuen izan!

Elizatik landa bilatzen zuen santutasuna, lanaren infernuan zapalketaren gordinean produkzioaren ka-

tean. Hator, hator egin zidan eskuarekin Aleksandrak, “Gordeidak lekua!” nik Gorkari ozen. Harengana joan nintzen, aditzei buruzko galderaren bat, gau eskolan hasi behar omen zuen, bakerik ez. Festetako aldizkarirako amaitu berria zeukan artikulua irakurriko nuenetz, “tasun” gehiegi ikusten zizkiola, laguntza beharrean omen zen. Etxean zeukala artikulua, “Etorriko?”, horixe erregutu, agindu, gutarik inork espartina sartu ez zuen etxe hartara. Aurkatu nion, saiatu nintzen, irakasle ibiltzeak ez zidala idazteko talenturik ematen. Ohartu nintzenerako ferraje beltz bihurriek astunduriko beirazko ateari bulkaldi gogor bat ematen ari nintzen inork ikusi baino lehen abantada batean sartzearren. Igogailuaren deia egin zuen. Horrelaxe esan zidan, “Igogailuan igoko gara”. Bitxikeria ustetu zitzaidan orduan hitz hori, “igogailua”. Garestiz eginiko kaiola, elizako lurrin bat, netol, argizari, dena ezpainetako lapitzarekin idazteko mirailez paretatua, bai, emakume batekin itxian sartzeko zen hura. Seigarrenari sakatu zion aurrezki kutxetako bulegariek igandeetan jakaren sakelan ageri zituzten boligrafoen botoien antzekoak zeuzkan zilarrezko plaka distiratsuan. Persiako alfonbra zati bat neukan sandalien azpian, hegan nindoan behintzat.

– Hemen ez dago ezer autentikorik, dena axalekoa da.

– Horixe esatekotan nengoen.

– Ni eskaileretatik igotzen naiz beti.

Areto hartako pareta nagusiak antzinako gramofono-altzaria, sabairainoko zurezko liburutegi itsugarria zeuzkan apaingarri, gaztaina edo haritz sendoa edo kaoba lakatua, nik al nekien, tomo gehienak larruzkoturik. Beste nonbait edukiko zuten telebista, gero telebista gu bezalako jendailarentzako tresna zela pentsatu nuen, etxe hartan opera diskak dastatuko zituztela afalondoan.

– Zer ari zara?

– Barkatu, hor eseriko banaiz alfonbra zapaldu behar dut.

Beha geratu zen harrituarena eginez, sakelan erdisartu nituen sandaliak. Udaberriko belardia zangozolan, ilaje gorri ezin garbiago hura. Aplike diskretuak hormetan, nordikoaren juzkua egin nion zutikako bat sofaren ondoan. Dena axalekoa, ezer autentikorik ez.

– Ez dizut erakutsiko, oso txarra da.

Eskuan zeukan, ezagutzen nuen damu hura, baina intelektualen konfiantzan geunden, ez zuen entzun beharko ez zela deus ulertzen.

– Txarra da edo gaizki idatzia dago? Tasun horiek gizontasun ez baldin badira, ez da txarra.

– Mozoloa!

Azpian *Elle* aldizkariak ikusgarri zituen kristalezko mahaitxo batean laga zidan, ez omen ninduen ikusi nahi muturra muzintzen, txabolaren barrunbeetan ezkutatu zen. Liburutegira hurbildu nintzen jostailu ederregiari uko ezin eginik. Ale baten goialdea zanpatu nuen atzamarrarekin bizkar haiek xanpain kopen edo Txinako kikaren gordegia edo, besterik gabe, apaingarri hutsa izan zitezkeelakoan. Liburuen gainean Mondrian-en erakusketa baten afixa zegoen bildurik. Paris, Galerie d'Art Contemporaine.

Zenbat sinfonia sortu ote zituen Brahmsek?

Zer ote da autentikoa burges zulo honetan?

Zer habil hemen snob honekin?

Aleksandrak ozarkeria maite zuela esanen nuke, probokazioa lantzen zuen, denon ahotan ibiltzea kausaren alde bozkarioz pairatzeko ondorioa zitzaion. Hura ere baliatzen ahal zuen, geldotasuna inarrosteko indarra zeukaten esanek, galderek, mahoizko prakek, titi gaineko atorra koadratuek, belarritakorik gabeko gingilek. Alabaina, bere artikulua, etxera gomitaturik beiraz zurez larruz liburu azalberrituz bikaindu areto

hartan irakurtzera utzi zizkidan ezin aratzago mekanografiaturiko folio haiek nabarmentzera eman gabeko aldarriz beteak zeuden. Azpiz, zeharrez, esanezez egiten zuten kontsignek bide. Guk idazten genuena baino gardenagoa zen, herri arrunt bateko emakume arrunt baten festa garaiko egunerokoa erakusten zuen umore zorrotzean, Aleksandrak bazeukan xalo antzean apainkeriarik gabekoa, urragarria zen estiloa. Ongi josia, artikuluak erraz eraman ninduen detailetik gogoetara, ezin zen hutsera jo. Egileak ezagutzen zuen gure populuaren lege zaharra, festetako akelarrean sorginak neskame soilak ziren, “mirabe” zeukan idatzia, oroitzen naiz, orduan ikasi nuen hitza nik, gau eskolako irakasleak. M letra buruz ikasten ari omen zen. Azkueren hiztegiaren lehen argitalpena zegoen etxe hartan, bi tomo lodi, eman ere egin nahi izan zizkidan. Mirabe, horregatik “festetako erreginak”, tituluaren ironia, egun bateko transgresio sinbolikoa matxismoa sendoagotzeko.

– Ona iruditu zait, zehatza.

Kopa hankadun gorritu birekin azaldua zen. Mahaitxoaren gainean kokatu zituen, kokatu egin zituen, ontzi bietarik bat pozoitua egon behar zuen. Ziritxotan ziztaturiko gerezi bana hondoan.

– Tasun baino, beste besterik bestela bestetik sobera dauzka, aukeran.

– Ikusten? Ez dakit zenbat aldiz irakurri dudan!

– Baina idazten dakiena Antxon da, hari erakutsi behar zenioke.

Ontzia ez epeltzearren horrela egin behar zelakoan, hiru atzamarrekin oratu nion koparen hankari, izoztua zegoen.

– Onegia da, festetakoan baino hobe duzu GazteArtearen lehen alean.

– Festetako aldizkarian etxe guztietara iritsiko da.

Koktel bat hartzen egon nauk Aleksandraren jauregian esanen niola Gorkari, esan behar niola. Ipurdia larru zuriko sofa batean, oinak larre gorri batean, han dena duk guk margotu aurrekoa.

– Barka... Lehen pertsonan idatzi duzu, baina zu ez zara emakume hori.

– Ez, emakume horrek ezin du idatzi.

Gonadunen, bularretakodunen zapalketa berezia aipatuko zidala uste nion. Horixe bera, baina merezi nuen moduan esana.

– Emakume horrek, irakurriko ote du artikulua?

– Agian bai, nork daki. Gizonezko batzuek irakurtzea ere ez legoke gaizki.

– Adibidez?

– Ez zait ba bururatzen...!

Ez zela Gorkari ez beste inori esatekoa erabaki nuen, gordean umotzea zor nizula zuri, neure buruari, Urgaiztoko arro idorreko kilkerrei. Topa egiteko keinua egin nuen, ukitu gabe hurbildu zenidan zeurea, “Zortzigarren egunagatik!” esan zenuen jostagarri: edaten dudalako naiz.

– Bermut hau behintzat autentikoa da.

– Ez da bermuta.

Sartu zinen inoiz gure etxeetakoren batean? Igogailua mespretxatu ahal izan gabe igo beharko zenituzke eskailerak. Naizelako edaten dut. Zuk Mondrian nor zen jakin zezakeena gomitatu zenuen, bazekien, Paris bazela ere bazekien, frantsesez irakurtzen zuen, ingelesez, taberna guztiak hustuko zituen zintzurrean behera artearen nozioa hobetu gabe. Gerora jabetuko nintzen, egarri egun argi haiek lainotu zirenean, ez dagoela irizpide bakarra aizuna jatorretik bereizteko. Atorra koadratuaren azpiko bular liberatuak izan litezke zurezko liburu bat baino gezurrago.

– Barka, ni Cinzanoraino iritsi naiz. Igandeetan bakarrik, gainera.

– Azeituna proletario bat daukala hondoan, ezta?

Esanen nuke ondoko isilunean Paco Ibañezen kantua etorri zitzaigula bioi ere burura, Miguel Hernandezen kopla haiek, Jaengo olibazaleenak. Areto hartan bertan egon zitekeen diska, ausaz. Aleksandrak ez zuen edan, kopa mahai gainean berriz pausatu, ziritxoa hartu, ezpainak hezetu zituen gereziarekin, ezpainetan gerezia.

– Sasoiko nago, igo nintekeen eskaileretatik ni ere.

– Bai, baina gaizki hartuko zenuen agian.

– Eskerrik asko, esperientzia bat izan da, norian igotzea baino beldurgarriagoa.

– Mozoloa!

Esadazue otoi nork, nork dituen jaso olibondoak.

– Zergatik hartu behar nuen gaizki, neskameek igogailua debekatua daukatelako?

Barretxo laurden bat eskaini zidan neure papera ongi jokatzen ari nintzela adierazteko. Hori espero zuen nigandik noski, sortzezko bekatua azalduko liokeen langilekume portatzea. Defini hadi, jainkoa. Ez da erraza izanen urgaineko hirurogei tonako garabiari aurre egitea. Berriro zuen gerezia kopan busti, tantarik isuri gabe jaso, gerezia ezpainetan hurrupatu, isil, ozar, ezpainetan ibili gerezia.

Nitaz trufatzen.

Izotz erregarria zen, aitor dezadan, Aleksandrak zeukana hatsean, begietan. Bestelako ikara zen mihiezpainak festetako xanpain merkeak mingarturiko haragian limurtzea edo edabe hark beroturikoan, gerezia ahorik aho, mihien artean jostari, goritu arte. Kopa biak zeuden pozoiturik.

Nolabait ere, beti maite izan zaitut, Aleksandra.

Izoztu haiengatik.

Campari.

Lixiba usaina beti amaren eskuetan.

Nola esan?

Tximistakurratuko kostan, Kredoarrin, Itzalarrin, Sorginarrin, edo bagarik gaiztoenak urtzen diren arroka eder hartan, Purrustarrin, Mitxitxolatik behera amildurik, Urgaizto errekatik barrena, hantxe etzaten nintzen, itsasoaren kulunkak entzuten birikak kresalaz betetzen, pentsamendua ezerezaren erdian galdurik. Irakurtzekoren bat eramaten nuen zenbaitetan, etzaten nintzen ez nuen zabaltzen. Gure itsasertzeko plata harkaitz muino erreka izenen ipuintasunean umetua bakartzen nintzen garaia zen, historia bana zeukaten

harri haiek, Lapurrerreka, misterioak sineskeriak naufragioak, euskaltasun mitikoa. Musikatresna jotzen bizilagunak oinazetu gabe ikasi nahi duenaren gisan ezkutatzen nintzen hantxe neure buruari entzuteko. Haizeak hareharrian eginiko akastu leunei beha nengoela asmakerian ibili ideiak gero hortik honakoak egiten zitzaizkidan, ametsetan bizitua hitzez adierazitakoan gertatzen den bezain motz. Ubarroien talde-arauei edo enbata zekarren haizeak sortu katxopa multzo zabalari begi emanik egoten nintzen luzaz. Rotterdam aldera urruntzen ziren baforeak, tortura hutsa zen.

– Noiz egin behar didazu galdera?

Aleksandrak, nirekin etorria, mokadu bat *sur l'herbe* egitera gomitaturik neure sofa, neure Pertsiako alfonbra haietara. Begiak zabaltzeke jarraitu nuen, haginka egin nion ezpainetan nerabilen belarrari.

– Zer galdera?

– Gizonezkoak emakumezkoari beti egin behar izaten dion galdera.

Ukondoan bermaturik niri beha, begiak zabaldu gabe ikusten nuen.

– Ez dakit, oraintxe hasi naiz Erich Fromm-ekin.

– Ez duzu jakin nahi?

Berriro etzanik, ahotsa zerurantz, tonu bat apalago.

– Gizonezkoa naiz, baina agian zu ez zara emakumezkoa.

Isilik geratu zen, ideia ona agidanez, huraxe buruan, hurrengo artikuluan garatzeko aukerak.

– Edo gerta liteke ni gizonezkoa ez izatea, paretetan idatziko dut “Ez naiz gizonezkoa”, sinatu egingo dut.

Eskua ezker-eskuin eramanez, hitzak airean itsatsiko banitu bezala. Aharrausi egin nuen sinadura gisan.

– Ez naiz gizonezkoa, ez daukat galdetu beharrik ez dizudala gozaturik eman jakiteko.

– Zer esan duzu? Uste duzu itxura egin dudala?

Ukabilkada muturrean, ostikoa potroetan, horrelako zerbait, giharrak tinkatu nituen zetorkidanetik babesteko, *La función del orgasmo*. Baina ez. Hobe begiak ez zabaltzea, hala ere.

– Ez, hori putek egiten omen dute, asko ikasten da tabernetan, horixe da gizonezkoaren zalantza existentziala, emakumezkoari egin beharreko galdera, gozatu al duzu, gozatu al duzu inoiz ez bezala, batez ere inorekin ez bezala?

Altxatu, arropa astindu, barreiatuak biltzen hasi nintzen. Aleksandra ukondo gainean *sur l'herbe*, habano bat larrugorritan erretzen egonen balitz bezain dominatzaile irriño petral harekin.

– Galdera ez da hori, galdera nork kendu zizun birjintasuna izaten da.

Jolasean, bai. Nitaz trufaka.

– Ez zait inporta, ez zait batere inporta.

– Ez zarelako gai soportatzeko. Zuek ezin duzue eraman...

– Barka, Aleksandra, matxo bat bezala hitz egiten duzu.

Land-Rover baten zarata, militarrak tiro saioak egitera goiko pista zaharretik.

– Sarda batean hartzen gaituzu. Gizonezko batzuek emakumea tratatzen duten bezala tratatzen dituzu gizonezkoak.

– Hitzez bakarrik, bestela badakizu askoz hobeto tratatzen ditudala.

Ahultasun handi batek hartu ninduen: urgaineko hirurogei tonako garabiarekin jarduna nintzen maitaketan. Motxila jaso, eskua luzatu nion altxa zedin, soinean zeukan atorra. Gorputz osoarekin estutu ninduen, baina ispilu batean sartu nahi izan banindu be-

zala, urtu, paretak hurrupaturiko pintaketa izan nendin. Laztan bat behar nuen.

– Nik neuk galdu nuen birjintasuna, gizonezkoen laguntzarik gabe.

Bokaletik gentozela, Senekozuloko farolaren azpian, karenatzeko ahuspez paratutako txalupen ondotik. Galtzen ahal zuen emakumezko batekin ere. Baina neure bizarrerako gorde nuen, garagardo bat ateratzeko eskatu nion enbarkaderoko tabernako komunean zer nobedade geneukan ikustera nindoala. Emakumezkoak ez ote zezakeen itxura egin arraren gupidaz?

Familia emakumearen kartzela da!

Emakume, egizu ihes kartzelatik!

Bizitza ez da aldatuko bizimoduz aldatu gabe!

Gatazka garratzean ginen lagunak, ni, zu. Hitzak behar genituen lehenik hura guztia geure buruari ulertzera emateko, bainuan azaldu behar zitzaigun formaren uste urdurian egon ondoan kubetako azidoak soslai hodeitu batzuk besterik ez errebelatzea bezalakoa zen nire bakarraldien gure eztabaiden emaitza.

Campari.

Gerezi izoztu hura ahorik aho, bion artean goritu arte.

Zigarro muturrak karkaxak labanazko idatziak pepita azalak gure etxeko eskaileretan.

Nola adierazi?

–3–

Autobusean oina ipini baikoz uxatu ezineko kiratsa sartzen zen gurekin batera, gesal ustel, haizeak idortu aitzin bakailaoak gatzetan hartzen duenarena, azpiko zurietarainoko langarra, dutxatu ondoren ere sudurraren oroitegian zoko hartzen duena.

– Zer egin behar duk gero?

– Ezer berezirik ez, Errenteriara joateko asmoa diat.

Haserre guregana jendea, bestek jasan behar lukeen hitzik egiteko eskubiderik ez geneukala adierazteearren, nahikoa dugu dakarzuen kiratsarekin zuek zurruta eginik zatozte.

– Bakarrak ez hau sosegatzen, ala?

– Gorka, ez zakiat zertaz ari haizen.

– Gustatzen zaidak, niri ere gustatzen zaidak Marilu hori.

Laster hasiko zitzaidan bere sexu lanindarraren plusbaliaz.

– Marilu ere gustatzen zaik beraz.

Algara egin zuen, Ternuatik arribatu berria zen baforearen bodega bihurtu zuen autobusa, alferrik zuten leihoak zabaltzea, algara hura kiratsaren trumoia zen.

– Aizu, zakur hil bat dago geltokian. Begira, hortxe.

Gidariari, baina denok entzuteko, erresuminez, poltsa hanpatu bana ukondoetan zintzilik emakumeak, un can morto, galego garbian. Bolanteari kendu, erregu eginez zabaldu zituen eskuak gidariak, hitzik behar ez zuen ezintasunaren antzezpena.

– Atzo ere hor zegoen.

Leihoetarik, oraino zabalik geneuzkan ateetarik, zirrituetarik, isiltasunak lekua hustera behartu zuen bakailaoaren kiratsa: baga handia kareleko begian behera negarrez.

– Zer nahi duzu egitea, zakur hila autobusean eramatea?

Sakondura tristeenetik zetorren durundioa “Bai!” hura, hesteetarik hesteetarainokoa Gorkaren ahotsa, ozen, higuin, tamalgarri.

– Zer? Nork esan du hori?

Sabaiko hagetarik zintzilik zeuden larruzko heldugarriei utzi, gorputzetara bildu ziren besoak, agurra amaituriko soldadu samalda.

Hau hasi besterik ez da egin.

Lanak baraurik irentsi ez gaitzan.

Gure amak zakur zapartatuen gainetik jauzika.

Gidaria zutik, atzera beha, guri, bidaiari guztiak guri, guztiak, baina Gorkak bereari ostera, pokerka ateratzen zituela hitzak bere leize sakonetik.

– Zeuk harrapatu zenuen, zakurrak berak esan zidan atzo. Seietakoa izan da, esan zidan, txofer hori izan da, mentazko karamelu puska bat daukana ezkerreko nagian.

Zolara beha ni, “Isilduko ahal haiz!” esateko kemenik gabe, Txurdo emakumeei buruz bezain zabar Gorka, edana baino ozarrago. Laguna bertan lagako ez ote nuenetz begiz begi neukan zakur hila besarkatzera oldartzeko nengoela abiatu zen trolebusa ateak zarraturik. Atzealdera hurbildu zen atsoa, jesartzeko leku bila.

– Ez dakit eskerrak eman behar dizkizudan, ez dakit.

Hura ere denek ulertu zuten, Gorkak emakumearena txantxetan hartu zuela usteko zuten, os cans non falan. Ez genuen beste hitzik egin. Apurka, bakailao kiratsaren baga handiak hartu zuen ostera autobusaren barrena. Kopeta zimurturik behatzen zidan Gorkak,

matelezurra nabarmenduz. Nire lepoa triskatzen ari zen haginen artean, karraskotsa entzuten nion.

– Adio, anderea. Gogor, gidari lotsagaldu hauei!

Jaitsi ginen, txoferrak bozina jo zigun, guregana egin zuen hatz. Zaflada bi eman zizkion bere buruari eskuin aldeko masaila jasorik. Baiki, horixe ginen, azal gogorreko alprojak.

– Hi, lagunak laguntza eskatzen duenean lagundu egin behar zaiok.

Trolebusean ginelarik burua makurtu nuen, ez nion ukatuko.

– Eskatu al dit ba?

Gorkaren esana poker batean berriro, hodi zabalaren hondorik ilunenetik zetorren durundio lupeztua.

– Eskatu gabe ikusten ez duena, ez duk laguna.

Plazara baino lehen despeditu ginen, trenaren biaduktu ondoan bizi zen, erratza gider betera zeukan bere logelako leihotik.

– Ordu erdi barru elizatzean.

Kultura berezikoa zen, gauza bitxiak irakurria, entziklopediak, osaba anarkista bat zeukan Pauben gerraz geroztik besterriratua, maiz samar egiten zituen egonaldiak haren etxean, frantsesez madarikatzen zuen haserretzen zenetan, liburuak pasatzen zizkidan.

Elizatzeko elkartean egin ginen lagun, pin-ponean, mendi irteeretan, formakuntza sozialeko bileretan, portuko deskargan. Erakutsi izan zizkidan bere marrazki linealak, geometria ederrak asmatzen zituen konpasarekin.

Ez genuen musikarik ilunabar hartan, Bixarberdek huts egin zuen bere kontzertu publikoa, bestela harengana hurbilduko nintzen, zimitoriora, burgoi iragaiteko, gor, eztikeria haietan liluratzen zirenen ondotik nabarmen gozakaitz. Eguraldi oneko arratsaldeetan neskak biltzen ziren ibai ondoko aulki berrietarik barrena joan nintzen, alferrik. Gure neskak gure herriko neskak, gureak. Frontoian zebiltzan lasterka motelean Maitane Laura Josebe, eskubaloiko taldearen entrenamendua zuten. Haiei beha zegoen Gorka, gazteon elkartea izanaren aurrean.

– Goazen! Heu aurretik, barrura!

Giltzatu egin zuen ostera, argiak piztu zituen.

– Nondik daukak hik...?

Elizazpiko geletara katakunba gisa zihoan karrajo luzean barneratu ninduen, margotu berriaren usaina zetorren paretetarik. Leloak, astero onena denon ar-

tean hautaturik paretetan garrasi marrazten genituenak, “Gu aldatu guk aldatzeko”, “Epelei, sua” haiek ezabatzen hasiak ziren isiltasun zuri baten azpian.

– Bertan lagako diat hau.

“Gezurra da, ez dago kristaua izateko beste modurik” erakutsi zidan margotu berriaren bazter batean, azpian “1977-VI-16” zeukan datatua, berak egina noski bezperan.

– Heu ari al haiz zerrikeria honetan?

Kartoizko kutxaz betea zegoen Zugarramurdi Mintegia, gure sorginek erabiltzen zuten gela. *Principios fundamentales de filosofía, Uhin berria, Conocimiento sexual de la mujer, Gero, No-violencia y objeción de conciencia, La hora 25, Creer es comprometerse...* Bost urte lehenago liluratu gintuzten testuak ziren haiek, baina tartean *Egunero hasten delako* ikusi nuen, *Euskal Harria*-ren lehen edizioa, Ibarrolaren grabatuak zeuzkana, Dostoievskiren obra guztien lau ale, Buenos Airesen argitaraturiko Brechten antzerkiak.

– Nondik azaldu dira hauek?

– Elkarteetako liburutegiak hustu dizkitek, dena hemen pilatzen ari dituk. Apaiztegira eramango dutela esan zidak Luisek.

– Berak utzi al dik giltza?

– Paretak zurituko nituen eskatu zidaken.

– Luisek?

– Orain posible omen duk politika agerian egitea, elizak lan espirituala egin behar dik aurrerantzean. C’est un pédale raté!

Beste pareta bat erakutsi zidan.

“Guk aldatu denok aldatzeko”.

Brosa latzean, handi, azalera osoa hartzen zuela. Harro zegoen. Baina ziur nintzen hura ere ezabatu eginen zuela, bete eginen zuela Luisi eman hitza. Lantegietako sasiko batzordeak txoko hartan bertan bilduak ginen sarritan, karranpatu egin izan zitzaigun besoa vietnamitan trakak inprimatzen, gure liturgia santua zapalduenganako elkartasuna zela esaten zigun, ahotan zeukan beti, inon izatekotan zapalduen artean aurkituko genuela jainkoa, batzordea joan zitzaionekoa defini zedin. Aurkitzen ez bagenuen ere hantxe zela, zapalduen esku lehertuetan, askatasunaren bandera zikina. Bazekien gu nola, bandera zikina askatasunarena.

– Ez duk langile bat, apaiza duk, ez dik sotana kentzen azula jantzitakoan ere.

– Orduan, zer duk cette merde, Gorka?

Berak ez zeukala zerikusirik nahi nuen entzun.

– Astean bitan etorri nauk, zati bat margotu diat aldiro. Uste nian Luisek itxura egingo zuela, berriz zabalduko zuela elkartea, beste moduren batean.

– Beste moduren batean? Traidore zikina esaten ditekenean heure alde azaltzeko ekarri nauk hona!

Zokora egin zuen keinu.

– Bion artean, lau sartualditan eraman genezakek interesgarriena. Nik bakarrik ezin diat, susmoa hartuko zidak gehiegi luzatzen banauk.

Kirol poltsa bat zeukan tanta zuriko arroparekin, gordegi egokia liburuak ateratzeko. Ezetz esaten zidan barrenak, herriko gazteriak berritu zuen elkartearen lapurretan kolaboratuko genuela. Hezetasunak harturiko leizea zen hura gaineko gisuztatu zabarra harroturik harria agerian utzi genuen arte, nolako kriket gero, gure neskek linaza olioarekin distiran sorgindua. Tronpatu egin gintuzten, erabili egin gintuzten. Baina batez ere elkarte klausuratuan horrela sartu izana nintzen damu, Gorkak zelata batean harrapatu nahi ninduen bere burua zuritzearren, gaiztoa zen lakioan.

– Nora hoa?

Antzinako eran zaindua zegoen, zinkerainoko serpentina zeukan kañetarako, bere gainarekin ateratzen zuten, garagardo bana bermeotarrarenean. Hantxe goiko apalean Campari handi hura, trainerukoen arraun sinatuaren azpian, apaingarri. Zigarroa erre bitartean futbolari buruz, ez neukan Gorkari zinezko hitzik egiteko gogorik.

– Baina kanpoko paretetan ere egin behar dizkiat pintaketa batzuk.

– Katolikoa izateko moduaz? Adarrik ez!

– Apaiz puta bat haiz, Luis. Horixe pintatuko diat herri osoan.

Begietara, esan hutsez jasoko ez zuena aztarrendu nahirik, nire begiak triskatzen sudur hegalak zabal, transatlantiko baten airemangak.

– Ez dik merezi, propaganda egin behar diok.

Erdeinuzko eztula egin zuen.

– Okerrena duk... Lana lortu zidak fonderian, lanpostu fijoa. Datorren astean hasiko nauk.

Besteok ezagutzen ez genuen harreman ilun triste azpiko bat zeukatela biek pentsatu nuen. Bigarren garagardo bana agindu zuen godaletak herrestan urruntzen zituela zinkaren bustian.

Milaka mailu paranoiko hire hitzak moldeatzen.

Gaizki moztu bizarrak estilorik egiten ez duen infernuan.

Kontradikzio guztien metaketa.

La Voz de España-n txukun bildutako bat atera zuen sakelatik mustaxa ezpain barruan hartzen zuela garagardoaren gaina hurrupatzeko.

– Hiretzako.

– Zabaldu al nezakek hemen?

Horretarako eman zidan, nolako begitartea egiten nion ikusi nahi zuen.

– Herbert Marcuse...!

Libidoa, kontsumoa, beharrezkoak ez diren premiak, gogamena apetentzia sistema hutsa bihurtu nahi duen boterearen metodoak, alderdi bakarreko gizakia, gau eskolako ikasleen artean ere eskuz esku zebiltzan apunteak, modako pentsalaria zen, ironia. Itxi nuen ostera. Neure buruari beha geratu nintzen, polizia hark besoarekin samatik oraturik zeukan gaztetxo matxinatua ni, zuek hil duzue Rosa Luxemburg oihuka Berlinen, azaleko *Sociedad carnívora* hitzen gainean.

– Horrelako material asko zagok hor barruan.

–4–

Ni itsasazaleko zimurrei beha bezala Aleksandra kontrabandako largabista alemanak harturik txatar metetan zer suma, huraxe, burdinazko azukre kozkorra, ikusten, hori auto bat izan zen atzo, gaur txatarra da, bihar beste gauza bat izango da, erakusketako eskandalua. Beldur zen hurbilduz gero gurpilen bat zulatuko genuen burdina puskailetan, garabi azpiko bagoien karrilartean geratu zen gu gorpu meta hartan, “Bost minutu!”, armadura preziatuena erreskatatzera igorririk. Zerbitzua egin zidaten bakailaotarako eskunarruek, oratu genion, atera genuen metal bihurrituen artetik xafla hilgarri meta hura buru gainera jausi gabe, ekarri genuen sarera, bildu genuen, “Arrastaka ez!”, jaso genuen, alboraka ibiliz ekarri genion trofeoa Aleksandrari lapa sortuz biok autorainoko hogei metro haietan, ganoraz heltzeko agindu zidan Txurdok hortzak estuturik, altxatu genuen apur bat gorago maleteroan sartzearren, manta gainean paratu genuen kontuz. “Hori, eskultura bat izango dela?”. Oker zegoen, “Hori eskultura bat da!”. Etorri bezala itzuli ginen, ikatz muinoen ostetik portuko azken arranpatik errepi-

dera irteteko. Ez zegoen guardarik, kaxeta itxia zegoen. Oraino bi ordu luze iluntzen hasteko, kontrabanda egun argiz.

– Ikusten? Zein zen arazoa?

– Herriko sarreran kontrola, hogei duro.

Mamauak memeloak momorroak mozoloak, ahapetik.

– Hitz batean adierazita gizonezkoak, ezta?

Guk sifoneria esaten genion oraino, Aleksandrak estudioa, hara eraman gintuen, beste behe batzuk bezala aitak erosia zuen kiebra egindako sifoi fabrika zaharrera. Dena planifikatua edukitzen zuen Aleksandrak. Zeta zuriz estalia zeukan aldare batera jaso eragin zigun Kieletik heldu zen Opel edo Volkswagen edo Mercedes inoiz urdin hura, kontuz, oihala zikindu gabe, itzulika hasi zen harri kubiko haren inguruan, angeluak aztertzen, ikusmira lantzen, pintura arrastoen arteko ugertuen efektuak dastatuz.

–Ederragoak dira desguazetako autoak!

Ezetz esan behar nuenean Aleksandraren kopeta ikusi nuen, bekainbaturik, argudioren baten zain, gogoeta estetiko suntsitzailean.

– Horrelako zerbait ari nintzen pentsatzen!

Frigorifikoaren atea zabaldu zuen Txurdok pultsua onartu gabe. Zabalik laga zuen, “Non dauzkazu garagardoak?”. Pelikula karretez betea zegoen. Objektibo batzuk transluzidoaren gainean. Proiektore bat, Super 8koa, anpliadora bat. Sokak, arraunak, haien ondoan utzi zituen Aleksandrak prismatikoak. Laborategia komunari egindako erantsian. Argazkiak zintzilik, burdinazko tramankulu batena, hari beha geratu nintzen, horrelakoa ote zen gauez? Zer egiten nuen nik itsasoa zimurtzen ikusten?

– Rodtxenko bat ematen du, ezta?

Kodak edanezinak ikusitakoan Txurdok erakutsi muturraz frigorifikoa hartu zuen ikararen antzeko batek ni, galdera hark.

– Kargadero zaharra duk, ez al duk ikusten?

Asanblada publikoa geneukan merkatuan, gaztetxoak, erretiratuak, etxekoandreak, Gorka, Xabier, Garbiñe, denak zeuden han baserritarrek barazki kaxak ipintzen zituzten zurezko aulki berde luzeetan jesarririk batzuk, zutik gehienak bizkarra postu itxien aurrean emana, kale izen berriak erabakitzeko nekean. Txurdok alde egin zigun, afaria prestatu behar zuen ehiztarien elkartean. Arbel handi batean izen zerrenda, pilota partidetan klarionarekin apuntatzen ge-

nuen bosnakako marratxo mordoak Askatasuna Euskadi Gudari Enparantza Berria izenen ondoan, eztabaida gogorra zerabilten Generalisimoaren Plaza zelako besterik gabe alameda esaten genionari izena erabakitzeko.

– Maiatzaren Lehena!

Merkatua beteko ahotsean Gorkak, berarengana jiratua zen jende hari guztiari aurre eginez: destroier baten kodasta ipar poloa bitan ebakitzen.

– Argazki batzuk errebelatu behar ditut afalondoan.

Afalondo arterainokoan ez neukan astirik Rodtxenko izeneko bati buruzko ezer ikasteko.

– Zer zen desguazeko autoen kontu hori? Beste bat lapurtu behar al dizugu?

Gelditu egin zen espaloian, atea zarratzen ari ziren etxe merkeetako mertzeriaren ondoan.

– Kubo perfektu hori zabalduko bagenu, borobil inperfektu bat lortuko genuke.

Ukondoak alboratu zituen kuboa zabaltzeko, eztandaren keinua eginez.

– Bi traktore behar genituzke, angelu banatarik tiraka.

Argazki erakusketak antolatzen zituen sifoi fabrika zaharrean. Hartan ere probokazioa lantzen zuen, biluzi maskulinoak, emakumeen aurpegi ubelduak, Clitoris Peccata Mundi titulatu zuen emakumezkoen arteko maitaketa. Karpeta lodi bat zeukan josteko Singer baten mahaian paratzen zuen kutxan bisitariek utzitako iritziekin, irakurri izan zizkidan baten batzuk, komentario ankerrak eransten zizkien trufa irain mehatxuei. Horrelakoa zen gure herria, bazekien. Ez ninduen berriz eraman bere etxera, ez nuen sekula Campari bonbilarik ikusi Kodak kutxatxoen ondoan. Sartuko ginen laborategian txatar zatiak edo fonderiako kea edo bizikletan zetozen langileak edo zango hondatu bat kubetaren hondoan noiz gardenduko azidoaren usain erregarriak asaldatu arte, argi gorriaren urpean igeri, asaldaturik, biluzte urdurian azaleraino heltzeko, elkarri.

– Zertan ari zara pentsatzen?

Gero lokomotora zaharreraino joan, mineralaren kargaderoan aurrera abiatu, egitura metalikoari basozangoka atxiki, kaburik bako aingirak bezala behean geneuzkan bederatzi burdinbideko errailen distiran itsutu, tolbaren moko makurrean begiak zerura etzan, hamabi metro beherago kaian arrapunpa eginik ba-

diarantz itzultzen ziren bagen plaxtakoak entzun ilargiaren hodei arteko ihesari beha voltaia handiko indar ezezagun batek inarros gintzan nose in flames: ipuintasunik gabeko zoko bat non burua hedatu pentsamendua ezerezaren erdian galtzeko merkurio tanta iheskorretan. Baina Rodtxenkoren eskultura haren barruan ere, nazientzat milaka blenda tona ontziratu zuen kargaderoan, bagarik gaiztoenez betetzen zituen birikak Aleksandrak.

– Gizonezkoek abantaila hori daukazue, ez duzue odolik eman behar, birjintasuna frogatu beharrik ez.

– Ez, baina ez duzu uste nabaritu egiten zaigula?

– Birjintasuna?

Laprast luzea egin zuen gasolio putzu hartan, portu osoan zabaldu zen algara, mendiosteko ezkilak, zer nekien nik, Aleksandrak berak idatzirikoak, hutsa. Sexu ikastaro guztietan egona zen, dena zekien, bularretakorik erabili izan balu ez nintzatekeen askatzera deliberatuko, dena zeukan planifikatua. Gauez interesgarria ematen zuela, zer edo zer egin behar genukeela irudi faliko harroxko hartan, zentraleko tximinian.

Zakila, gure gorputz espirituala.

Ezarritako ordenaren aurkako altxamendua.

Voltimetroaren orratza dardaraka eguerdian amak sukaldeko irratia pizten zuenean.

Ilunabar haietan, atertutakoan, zementutik makadametik trenbidetik goititzen hasten zen lurratsaren antzera ahosoinu garden batek hartzen zituen fonderiako kamioien zabaldegia, sareginen biltegi zaharra, ontziolako estalpeak, moila transatlantikoa, farolako xendra, gaztelu birrindua, tabernaurreak ibaiertzak frontoia plaza, herriko zurkulu guztiak beti doinu berak. Guk lelo gozo hura kantatuko genuen ahapeka, “abestu”, nonahi ginelarik, gogoz bestera The answer is blowin’ in the wiiind... Antxonen anaia Wright uharteko festibalean egona zen, London bisitatzen zuen urtean behin, ekartzen zizkion anaiari. Pink Floyd gorrotatzen irakatsi ziguten Jimi Hendrix The Doors Jim Morrison Patti Smith haiek, Patti Smith, her hand inside my cranium. Baina burutik ezin atzendua gertatzen zitzaigun Bob Dylanen koipatsu okaztagarri hura. Elizako zimitorioan, arkurik ez daukaten arkupeetan, zangoak loto jarreran antxumaturik jesartzen zen lurrean Bixarberde bere kitarrarekin bere ahosoinuarekin, *Blowin’ in the wind* egiten zuen deia. Apurka, eli-

zako doinu loretsu hark zabalduriko hare krishna ametsean sartzen ziren neska guztiak igogailu isilenak altxatuak, abandonatzen ninduen Aleksandrak sonanbulu, obo erdia osatuz jesartzen zitzaizkion GazteArteak kapitalismoa salatzeko egina zuen muralaren ondoan zangoak loto jarreran antxumaturik, berak, begiak bilduan, mistiko, *Adios ene maitea, Yesterday, Itsasoa laño dago, The flight of the Condor* jotzen zituela, horrelakoak, gonbitolarria ematen zigun afruskeria, kantari jartzen zituen neska guztiak, itzaldu arte kantari buruak metronomo, doinu haiek denak, denak, gonak bezala, bularretakoak bezala, Nerudaren hogei maitasun poemak bezala, emakumea menderatzeko gizonezkoek asmaturiko amarru sentimentalak zirela oharteman gabetarik.

Zurrutean neurtzen den nazkamena.

I not believe in yesterday.

Edalontziak bete azkazal.

Tarteka solasean jarduten zuten, letrak irakasten zizkien Bixarberdek, paperak banatzen, adierak argitzen. Emanak zituen hilabete batzuk nonbaiteko Euskal Herriren batean, mendiari alde egin ezinik egon behar zen urruntasun hartan, Orexan, garotan pinutan gorotzetan belarretan solasa trebatzen. Herriko eus-

kaldunok baino hobekiago egiten zuela itzuli zen, hitanoan neskei bere kitarraren emetasunak besarkatzen zituela, liluratuak zeuzkan, “ditun” esaten zien, “dizkidan”, “nindunan”, amaierako ene haiek mitxeletaren vibrato kilikagarriak ziren bihotz gurietan, bazekien xarmatzen. Arima minberen abesbatza guk, taberna zulotik haiei.

Buruak bete urratu.

Edanak lurrikara oinetara.

Etorkizuna zen enbata handiaren bezperan.

Zu behar ez zintudan, inork behar ez ninduen bazterretarik zabaldu gabeko libururen baten ondoan lerro ezinduz marra hilez beteriko koadernoa galtzarbean itzultzen nintzen, pareta zurienean idazteko oharrak arrain ezinezkoen prototipoak orri artean umotzera zarratuak hona hemen iraultzarako prestatzen ari den gazte bat, gaztetasunerako prestatzen ari den iraultzaile bat esanez ezkerreko jendearen ikur ofiziala bihurtua zen bandolerako zorro kakia izar gorriko orratzez apaindua zeramatenei, harro.

– Horrek egin dau.

Buruari eragin zion bermeotarrak Bixarberde kafe kikara baten aurrean zegoen aldera, Luis Otañok noizbait Tourrean irabazi koparen azpian. Hustu arte itxaron zidan, elkarrekin irteteko. Hurrengora gomitatzen nuela esan orduko galdetu zidan, erdaldunok ulertzeko moduan, ezer onik irakurria nintzenetz azkenaldian. Galtzarbekoa erakutsi nion, tituluari beha geratu zen, entzuna zeukala, gezurra, Kobayashi Isharen antologia bat ingelesez, Antxonen anaiak ekarria. Itzuli zidan zabaltzeke, hartu nion, hartu niolarik Bixarberderen eskuineko atzamarra, notarik lirdingenak sortzeko erabiltzen zuen hura bera ikusi nuen neure hitzei nire arrainei atxikia Xabierrek loturarik gabeko emakumeak aipatzen zituelarik gutariko edonori eskua titimotzera luzatzen zigun bezain sastar. Alferrik estutu nuen besoarekin, zuztarretik atera zidan.

– Emadak hori!

Espaloian ziaka zihoala orrikatu zuen nire koadernoa. Maoren liburua eutsiko lukeen guardia gorri bat bezain pozarren altxatu zidan begietara.

– Emadak hori!

Arineketan hasi zen Trecet anaien material elektrikoen biltegirantz, atzetik eraso nion hesteak bihurritzen zizkidan amorruan. Aldea kendu zidan, ni antza-

ra ferratua nintzen bera haizea zen. Madarikatzeari utzi nion unean ahalke gorozte batek zikindu ninduen burutik behera, neure lerro guztiak irakurtzen zizkidan oroimenak. Geratu egin nintzen fonderiako matxeria pabiloiaren bazterrean, hango zalapartak barruan neukan zalaparta isildu arte, Bixarberdek hurreratzeko egiten zidala besoarekin Baroneneko baratze ondotik. Eskubidea zeukan, guk entzun egiten genuen bere musika. Zergatik ez ninduen ni epaitu behar? Arnasa hartu nuen, esan behar nizkionak asmatzen abiatu nintzen, astiro.

– Oraindik espainolez idazten al duk?

Pitzaturen bat zeukan, artista osoa, bera zen erdara ahotan hartzen zuena, hura ez zeukan Orexatik ekarria. Nik ere halaxe berari, ez nion inoiz eginen euskaraz.

– Emadak hori.

– Ez diat ireki, hago lasai, ez ditiat hire maitasun poemak irakurri.

Horiek beste koaderno batean neuzkan, zeinen betegarri, denak urratzen nituen gero, arrunt melengak euskaraz idatziagatik.

– Hau espainolez zagok.

Bai, loturarik gabeko errapearen arin-astuna neurtuko balu bezala haztatu zuen koadernoa esku zabalduan, deitoratzen zuen hizkuntza berean tematurik.

– Ezagun dik, ireki gabe ezagun dik.

Burdinaren zama eduki behar ote zuen euskarak?

– Hemen dagoen espainol bakarra herorri haiz.

Sor egin zion entzunari, ikasi kantuan jarraitu zuen, ezin zuen aldatu, buruz hartutakoa jo beharra zeukan Bixarberdek, milioika saioren nekean arribatua zen trebetasunera. Supizteko bat atera zuen, Silver Match zapala, ahurrean dotore egokitzen zena, gauzatxoa. Su txepetx hartara hurbildu zuen koadernoa.

– Berehala hartuko dik honek, sukaldeko literatura besterik ezin duk egin espainolez.

Ahosoinua jotzen zuen ezpainak lehertu behar nizkion amorrante hari, ez nuen deus egin. Baretu handi bat sortu zitzaidan, erraihustu egin banindute bezain arindua, nirvana modu bat zen, ez nuen ukabila itsutu ahal izan: sareak bildutako helizea. Itzulerdi egin nuen, maldan behera hastandu nintzaion, ezaxolatua, sekula idatzi bat marraztu izan ez banu bezain, paper errearen kedarrak noiz igarriko plazako platanondoen hostoetan, tabakoaren errautsa erosi berria nintzen

Olivetti txikiaren teklen gainera bezala. Klase triste bat subjuntiboa esplikatzen. Ezpainak belztu arteko edana lagunekin, edan, edan, gaur ez hago oso hiztun, gero erla batzuk zeuzkala Txurdok.

– Iraultza, gizonetan egin behar da lehenik.

– Barka ezak, Gorka, gizonon erdia emakumezkoak dituk.

– Hi, Aleksandro, aski diagu hire alukeria horiekin!

Gogoan hartu nuen, interesgarria zen hitza, banekien nor poztuko zen nire ahotik entzunik.

– Asko aldatu al haiz hi?

– Gauzak aldatu behar dizkiagu aurrena, gizona aldatzeko.

– Hator lantegira, igo hadi bidoira, esaiek gauzak hankaz gora jarri behar dituztela!

Luze jo zuen afalondoak ehiztarien elkartean, teorizatzen laketzen ginen orduan, denok ginen teorikoak, batzuek “ekindu” egiten zuten, horrela esaten genuen, ekindu beharra zagok.

– Ixo!

Beti bezala ipini zituen besoak tiraputzarako Xabierrek, kaiolatik burua azaldurik ku-ku egin zigun diosala kukuak, “Pum!” bota zion gure lagunak, kaiolan ezkutatu zen beste ordubeterako.

– Zenbat duk edariarena?

Gorkak edo Txurdok edo Xabierrek hiru ordu eskas zeuzkala lotarako, bazihoala, beste batzuek paretetan margotzen zituzten haietarikoak ziren, azpian harrapatuak, horixe esaten zuten ahal zuten guztietan, ederki margotzen zutela batzuek azpian harrapatua.

Hegotik aritua zen egun osoan, tanta lodi batzuk ekarri zituen haize aldaketak. Ez neukan gogorik etzateko, edaten jarraitzeko beharra neukan, argudio berriak zetozkidan, galdera askatzaileak erantzun gaiztoak, esnadura pindartsu batean abiatu nintzen etxerantz, kulunka gozoa egiten zuen kubertak, zangoak kokaturik nindoan, bai, kokaturik pausaturik, Aleksandrak kopak bezala bere egongelako kristalezko mahaitxoan.

Ez nagok hain edana.

Atzera itzuli nintzen ostera, aingura jaurti nuen, fokura ekarri nuen murala, mehatxuz urratua zen, mezu faxistez nahi ezik edertua, bururatu zitzaidan lagunen bila lasterka abiatzea, hona hemen froga, margo hau ekindu ederra ez denetz, telefonoa jotzea, oihuka hastea: arteak balio du.

“Jendea desbideratzeko arriskua zaukaagu”.

“Nik uste nian politizazioa egiten genuela...”.

Olivettiaren teklatuaren antzekoa.

“Paretak margotzea, musika egitea, hori dena ondo zagok, baina...”.

“Baina horretan geratzeko arriskua zaukaagu”.

Emakumea biluzik Olivettiaren teklatuaren antzekoa da.

Gorka, herriko pareta guztiak Apaiz puta bat haiz Luis pintatzeko behar zituen hura ere, ados zegoen.

“Momentu honetan, politika zuzenak zaukak garrantzia”.

Letra guztiak daude neure aurrean, neure esku, zer hitz sortu, zer idatzi horma zuri hartan.

“Momentu honetan, politika zuzena borroka armatua duk”.

Xabierrek, eztabaidaz asperturik kafeteran okupatua, burua gureganatu gabe, entrenamendu ostean nekea dutxapean kentzeko kantari aritzen zen poztasun berean.

Emakumea biluzik pareta zuria da.

Zer egiten duzue hor niri beha!

Gudarien Enparantza? Maiatzaren Lehena?

Ikusten zaituztet, gelako argia piztu gabe leihoan, herri alkoholizatu bat mozkortuari harrika emateko prestatzen.

Beha ezazue!

Igerian joan ninteke oraino hormigoian barrena narrasean zuhaitzez zuhaitz zutiturik gonbitoka egiteko. Ikusten? Zakur azkazalak platanondo guztien orpoan.

“Inkonpatiblea al da politika borroka armatuarekin?”.

Gorka edo Txurdo edo Xabierrengana egin nuen, gurpil hagindunaren azpian zegoen langile adarloratuarengana, haztatu egin nuen. Urdindu egin zizkidan. Aerosol poto bat lurrean. Ia beterik zegoen, Pictex haietariko bat, ataskatua. Herrikoak izan zitezkeen, bagenuen ez aspertzekoa auto urdin guztiak kontrolatzen. Sinadurarik gabe, bai, herrikoak. Tantak erauntsi bihurtu ziren, zimitorioko lurrean idortu nituen atzamarrak, jesarri egin nintzen loto jarreran, hantxe, gure margoz babesturiko emakume bortxatuaren ondoan, labanaz zauritu bularrak laztanka. Hil egin behar omen gintuzten bat banaka. Zigarroa piztea lortu nuen. Alferrik saiatu nintzen faxistatzat jotakoak auto

urdinen bati lotzen. Haizearen hotzak altxarazi nin-duen.

Inperioaren drapoa ilargia betean.

Nola sortu enbata Baretasunaren Itsasoan?

Dena galdetzeko dena amestu behar da.

GazteArtearen muralak, sarrats harekin, praka zi-kinduak ekarri zizkidan gogora, odoldu hura, Marilu ikusgarri kristalezko mahaitxo baten azpiko aldizkari. Bi hilabete lehenago izan zen, maiatzean, amnistiaren aldeko manifestaldi gogor haietan.

–5–

Galleta fabrika zaharraren parekoan jaitsi nintzen, Oiartzun ibai ondotik gain-behera egiten zuen Lartzabal futbol zelai ospetsuraino oinez segitzeko asmoan. Osteguna zen, libratzen nuen ilunabarra gau eskolan. Kopako kanporaketa bat zeukan Beasainen aurka Touring-ek, partida ona. Txalo zaparrada bat entzun nuen, gero megafonoak zikindu egiten zituen hitz batzuk, asanblada. Jendea zegoen udaletxe aurrean. Amaitzen ari zen, hirigintza batzordea sortzeko pausoak eman behar zituztela, auzoetarik hasi. Sakabanatu egin ginen. Orduan Marilu ikusi nuen, bera ere asanbladan egona, lagun batzuekin despeditzen aspaldian urik ematen ez zuen kupritsak hartu iturriaren ondoan, kupido baten besoetan behera egarrituari buruz labainka zetorren nongobako arraina.

– Kontuz ibili, batzuetan kanpoko jendea azaltzen da asanbladan.

– Ni ere hala naiz.

Xabier anima genezakeen, Mariluren herria goratzen saiatzen zen portutarra. Titular zebilen aspaldiko partez, entrenamenduetara itzulia zen inork espero ez

genuela. Aitzakiaren bat behar banu bezala neska batekin paseatzeko. Azterketa bat prestatu behar zuela, baina ez zeukala liburuak zabaltzeko gogorik. Maisu Eskolan zebilen, azken kurtsoa zuen. Futbol zelaira abiatu ginen ibai ertzetik, paperolaren eraikin karratuek sortzen zituzten mulko zurien azpian azido sulfidrikoa arnastuz.

– Lehengoan besapean pistola zeukaten batzuk azaldu ziren dantza eskean.

– Jendaila hori nahita nabarmentzen da.

Neska politaka ibili omen ziren, barretxoak eztuldu zituen. Zein memelotzen ote ginen gehiago dantzan, neskak ala mutilak. Nire lagunak behintzat, ez zekiela zenbateraino. Ezin nizkion dantzaren hitz arrak aipatu, ez nizkiola aipatuko. Ez nintzenetz konturatu “Maita nazazu nik maite zaitudan bezala” zioen alpakazko eraztun haietarik bana zeramatela lagunek.

– Sexuen arteko berdintasuna adierazi nahiko du.

Txantxetan ari nintzelakoa eginez, ezpainak sudurrera luzatuz.

– Zuk ez al daukazu nork oparitua?

Begiak epeldu zituen nire antzerkia neurtzeko.

– Ez dizkie inork oparitu, erosi egin dituzte.

Barre egiten zuelarik eskuarekin estaltzen zuen ahoa, hortzak ustel edo oker balitu bezala. Ez ditu hortzak erakutsi nahi, arriskutsua da, Marilu arriskutsua da idatziko nuen paretarik ederrenean hirigintzako batzordea dena hondatzen hasi aitzin. Nahiago zuela dantzan baino mendian, aspertu egiten zela igandeko plazan.

– Dantzan ezagutu zaitut nik.

Urdaburu taldekoak ziren, zoragarri itzultzen ziren ilunabar batzuetan Aizkorri Gorbeia Urbasako lokatza guztiz kendu gabe bota tramankulu haietan ontziratuak: Santa Kruz apaizaren kankailuen luizia, otsoak Parisen.

– Aspertu egiten naiz dantzako lagunekin, konforme?

Mendia aterpez betea dago, mila bide dauzka ikasteko, mila intimitate. Zergatik mindu behar nintzen?

– Benetan etorri al zara futbola ikustera?

– Baliteke edo litekeena da.

Euritan hasten bazuen txanoak jantziko genituen, ez genuen elkar zelatatu ahal izanen zeharrez. Ez, ez zuen eginen, ankerkeria izanen zen.

– Ez da lehen aldia etortzen naizela aste barruan. Baina ilunabarrez ostegunetan besterik ez daukat libre.

– Ni azaldu naiz portualdean larunbat batzuetan, bakarrik. Gorkarekin topatu izan naiz, ez al dizu deus esan?

Merkantziaren bagoiak nire gorputz guztien gainetik.

Burua ezkutatzeko oskolik ez duen barraskiloa.

Eskerrik asko, adiskidea, gorroto didazuna isiltzeagatik.

– Nik ere libre izaten dut ostegun batzuetan.

Bigarren zatia ari ziren jokatzen, sarrerarik gabe uzten zuten sartzen. Xabier ez zebilen belarretan, ordezkoetan ere ez nuen ikusi.

– Ez duk azaldu. Etorri balitz golen bat sartuko geniken.

Bertan laga genuen etxekoen tristura.

– Neskaren batekin ibiliko da, ez digu ezer kontatzen.

Land-Rover batek frenatu zuen zakar hogeiren bat metrotara, bigarrenak berehala. Gristapokoak ziren, kontrol bat ezartzeari eraso zioten trafikoa zatirik ilunenean geldiaraziz. Eskua hartu zidan Mariluk. Besoa

bizkarrean ematea pentsatu nuen ni ere gozoago babeste alde, baina Mariluk ukitu egin behar zuen, izerditzen hasia zen, helduleku bat, norbaiten berotasuna bere haragian. Ez ziguten jaramonik egin, autoen maleteroetara zeuden. Isilik jarraitu genuen Gabierrotako iturrira iritsi ginen arte.

– Sekulako egarria egin zait.

Edan, edan, edan, eskuak freskatu xukatu Mariluk irri triste batekin behatzen zidala. Eskua hartu nion, neure eskuetan lehortu nuen igurtzika. Ibai ondoan zuztarrez gora atereak zeuden banku zahar iraulietako batean jesarri zen, malkotan. Kokoriko jarri nintzaion. Eskua luzatu nuen masail heze haietara, baina ez zidan utzi. Estutu egin zidan, gatibatu egin zizkidan eskuak eskuetan, magalean: kate honek lotzen nau, kate honek nau hiltzen, kate honen gogorrak nau ederragotzen... Askatu ninduen, plantxatuko balitu bezala pasa zituen eskuak zabal masailetan, altxatu zen, goazen, autoen ilara plazako semaforotik haratago luzatzen hasia zen, atzerantz hausten zuten batzuek ferra eginez kilometro biren buruan beste kontrol batean jausteko. Halabeharrak hartaratu gintuen, baranda bati helduko ziokeen bezala zion nire eskuari, aterpe, egitate humanitario, arriskuan dagoenarenganako

sokorri, zer izan nintzen ni besterik, pasarelako soka marinel hordiaren estropezura. Ez neukan eskubiderik, itomena libraturik, ezpainak salbatuaren ezpainetan pausatzeko. Zigarro bat piztu nuen bi eskuak sakelan ez gordetzeagatik, arruntasuna ematearren tarte lotsor hari. Edo ez ninduen, agian, trofeo bat bezala erakutsi nahi herrian, magaleko esku magaleko txakurtxo. Nolako ustea, zer nintzen ni orain, etxeetan gudari bana, kale guztiek beren buruzagi politikoa zeukaten herri haren barruan.

– Mesedez, inporta al zaizu etxeraino laguntzea?

Bederatziak aspaldi iraganak ziren, argirik ez zegoen karrika zaharretan. Giltzaturik zeukaten sotoko atea, zabaldu zuen, burua luzatu zuen lehenik barrurantz inor ote zegoen edo, sartzeko agindu zidan argia piztu gabe. Zarratu egin zuen barrutik ostera. Eskaileraren orporaino eraman ninduen, eraman ninduen elkarren ondoan jesartzeraino hirugarren mailan.

– Barka nazazu, beste modu batean gertatzea nahi nuen.

Ahapetik, iluntasuna ez iratzartzeko.

– Zer barkaturik ez dago, Marilu.

Erraza zen plaza zabalean, plaza agerian, plaza betean elkarri heltzea. Soto xume bat, lau pareta, bar-

katzeko eskatzen zidan neska hunkigarri hura, ilunpea, hemen ez neukan koderik.

– Beste modu batean...

Oinpean lehertzeko piztia bat, orduan besarkatzen baldin banuen. Gertatu bat nahi zuen, gu biok hartzen gintuena. Esandakora iltzatu nituen eskuak, burua.

– Zer gertatu behar zen ba?

Gorritasuna gorantz Mariluren aurpegian, horrelaxe ikusi nuen, biluztasun garden, marmoka txipi bat kontrasteko likidoz betetzen sotoko lau bazterrak erakusteko.

– Horiek agintzea gure bizitzan, ez da posible.

Neska bat behar duk puntu lokatik irteteko!

Heldutasun politikora eramanen hau!

Euskal Herriaren basamortuak ez dituk biko indibidualismorako!

– Horiek ere izerditan daude, ezin dute.

Ikara, eskuak barandarako haga batean nire ezkerreko belaunean sarrailaren hotsera. Gizonezko bat karrikako argiteria ahularekin batera. Besaurre osoa pausatu zuen nire izter gainean Mariluk, ezpainetara ekarri zuen ezkerreko eskua. Zangoarekin eutsi zion ateari gizonak aterki bildua karrikarantz astintzen zuen bitartean. Barruratu zuen zangoa, atea giltzatu

bitartean aldameneko argiaren kisketari eragin zion. Ozta itzulia zen eskailerari buruz sotoaren erdian zurturik geratu zitzaigunean.

– A, barkatu, barkatu!

Mariluk barrea eskuarekin itotzen zuela.

Burua makurtu zuen aztoraturik mugaitzeko bisitariak, giltza bila hasi zen sakeletan, zamarrarenetan galtzenetan, bizkarra eman zigun burua jasotzeke, aterantz hurbildu zen, argia itzali zuen giltza egokia asmatu baino lehen, Marilu eztulka lehertu zelarik entzun genion zabaltzen zarratzen giltzatzen. Euritara jalgi zen lagunak nor bere etxera sakabanatuak zituelarik, tabernarik urruneneraino joanen zela esan zidan Mariluk.

– Aita zen.

Ez zekien ezer, egon egiten zen, luzaz, izterrez edo eskuez higidura txipiak egiten zituela tarteka, ez zuen agintzen ez zuzentzen, eman egiten zuen hartzeko, ez zen nire gorputzaz nire buruaz jabetu nahi: Teherango gazteen kulunka eztia. Orduan jakin nuen Mariluk ez zidala inoiz galdetuko zertan pentsatzen nuen maitaketa egin ondoren.

Errenteriako karrika nagusia gainezka gindoazela, jeep batek eraso zigun perpendikularrean, debekaturiko norantzan, abailan, barrutik tiroka, tiroka makadamera jauzi eginik txapelokerrak. Izulaborrian sakabanatu ginen garrasika, lagun asko lurrean herrestan kukutu zen auto tartean, ez dakit nora egin zuten Txurdok Gorkak Garbiñek Xabierrek Antxonek Rikardok Maitanek Josebek.

– Hemen! Hemen!

Baina aitzina jarraitu nuen kasu eman gabe paretari atxikia, sotoan sartutakoan porraka hebaintzen gintuzten, taktika hartan zebiltzan azken boladan, entzuna geneukan anbulantzia bat erabiltzen zutela zaurituak bahitzeko. Aurpegi ezagunek egin zidaten dei noizbait, sartu nintzen.

– Igo, igo, ez geratu hor behean!

Ateak ireki zizkiguten etxepeko batzuek, ez geratzeko eskaileretan, igo egiten zirela azkeneraino. Sei edo zazpi lagun zeuzkaten sukaldean hirugarren eskuinekoek. Arnasa berdindu nuelarik buru bilo-hori kizkur bat ikusi nuen, iruditu zitzaidan.

– Eskerrik asko!

– Ez da ezer, ez da ezer...!

Bai, Marilu zen, eskerrak eman nituenean itzuli zuen burua zegoen aulkitik, zurbil, eskuak magalean.

– Marilu... Ez zaude ondo.

Ezezkoa egin zuen buruarekin.

– Zauritu egin zaituzte!

Apal, barkamena eskatuz bezala, etxekoandreak jaso zion parka berdea sukaldean geundenok lotsakizunik ez zeukan huraxe ikus genezan, emakume biluzia, zerk agintzen zuen Mariluren bizitzan.

– Ez, ez... hilekoa etorri zait, ikaratu egin naiz tiroekin.

Ilundu zabal bat ageri zuten galtza grisek sabelpean gu guztiontzat, han geunden mutil guztion begirako, ziritxo batean ziztaturiko obulua, obulua kopa hankadunaren hondoan, zabaltzen zuen gorritasuna edan, edan, edan.

– Astebete barru tokatzen zitzaidan.

Zapalketak hilen dituenen odolustea, emakumea denon ordezko biktima aitzinatua, odolaren zikindu hura ikusirik jakin genuen sukalde hartan ginenok zaurituak hildakoak edukiko genituela egun hartakoan edo hurrengokoetan: Marilu buruz behera izter zabal zintzilikaturik harategiko kakoan.

–6–

Fonderiako tutuak portukoaren ulua luzatzen zuen sutan legokeen baforearen deia hamabiak emanka, otordu, ontzia abandonatu, makinak isildu, tabernak lantegi bihurtzen ziren tenorea. Tabernak eman zigun gizon titulua, merkea edanez egin genituen lagunak lagunago gaztetasunaren erritu-dantzan, gure aitak zurrutean ezagutu genituen azken belaunaldia izan ginen, neskekin azaldu ginen lehena, haiek ordaintzen zuten erronda batzuetan, leku maskulinoa hartuz noiztenkako kafetegirako gomitetik tabernako zerrauts zikindura, zikintzera, lehen urrats liberatua emanez. Ukondoa zink haietan emanik egin genituen mundua aldatzeko planak eman genituen sasiko hitzorduak eztitu genuen gure frustrazioa handitu genuen gure erresumina.

– Jo al diok larrua?

– Hark jo ziok honi.

Barre egiten genion edanak erasaten zionari, edanak gintuen garrazten, zailduak geunden. Neskek ezin ziguten lagundu hura uzten, sobera harreman lohi limur likits lardatsa geneukan alkoholarekin, ausartu

egiten gintuen gordekoak ateratzera isilekoak esatera: dena ez dugu aski.

– Gurea, intelektuala duk.

Horretarako esana zen, zurruta kontrako eztarrira joateko, emakumeari barre egiteko.

– Ez al da posible neska batekin harreman intelektuala edukitzea? Erantzun agudo!

– Intelektual hutsa banintz, konprenituko nikek.

– Zuek ez dakizue, honek beste bat zaukak txortarako.

Tabernaren historiari zegoen lotua gure historia, mintzaleku demokratikoak uste genituen zoko erakargarri haiek historiaurreko leize bihurtzen genituen seigarren txoperan mutilok, konfiantzan, aldamenean neskarik ez geneukanetan. Bi, hiru belaunaldi egiten genuen atzera ardoaren epelean narrasturik.

– Ez al hidaken esan hiri ere gustatzen zaikela?

– Beste guztiak bezala!

– Ba amolai, Gorka.

Copenhagen Riga Bremen Oostende Limassol Plymouth Amsterdametik gure portura zetozen baforeek bestelako duintasuna ematen zioten ostertzari, zer

zen hura, eskuinera akasturik gabeko marra horizontal batek bereizten zituen bi urdintasunak, itsasoaren kolorez margoturiko aintzira izoztu bat, gasolino bakan batzuk baino ez arrantza txipian lehorretik hur. Antxetaren bat edo beste errepide bazterreko harkaitzetan, errepidea labarren orpoan labarrei uhina debekatzen, itzalik ez seinalerik ez, itsaso domestiko bat Bilboraino, herri xarmagarriak hoteltxoak hondartzak baserriak mendi magaletan.

– Ez nuke herriotan bizi nahi.

Errepideak ingurada interesgarriak zeuzkan, aitortzekoa da, Aleksandrak gidatzen zuelarik.

– Zure artikulu hori erratua da hasieratik azkeneraino.

– Nire artikulua? Nondik atera duzu hori! Antxonek idazten ditu GazteArteako gehienak!

Aitak moilatik askatzen ez zuen txaluparen egoera ikusi nahi zuen, laguntzeko eskatu zidan, lagundu egin behar nion, bai Aleksandra.

– Eztabaida ez da gizontasuna edo Euskal Herria, ezin duzue konprenitu?

– Gizontasunaz, emakumezkoek dakizue.

Mututu egin zen bidearen bihurriari emana, bizkarra tente, behakoa makadam higatuan.

– Zuloagaren museoa! Bazenik ere!

– Publizitatearen amua neska hori da, Soberano botila eskaintzen duena, zerbitzari, sexua saltzen. Amuan enpalatua balego bezala, ez duzue konprenitzen!

Aparkatu genuelarik plastikozko ontzi handi bat atera zuen maleterotik, gasoil bila igorri ninduen.

– Abesti izena daukan batean egongo naiz.

– *Blowin' in the wind*, ezta?

– Mozoloa!

Teorian onartzen genuena gaitza egiten zitzaigun atzematea gure zirietan gure solasetan gure idatzietan, gauzen aldaketa hutsak ez zuen ekarriko gizakiaren aldaketa, geure barrua ere behar genuen irauli gauzak zinez aldatuko baziren.

Euskalérri, egízko gizónen érri!

Zer ote da harreman normal bat?

Naizen guztia da nire akats bakarra!

Israelgo gobernuaren pedido handi bat zeukaten fonderian, gobernuarena zela zabaldu zen. Presenta nendila Gorkak, delineazioko ingeniariak esan ziola ingelesa zekien norbait behar zutela, gaztea, hilabete

batzuetarako egun erdiz. Gizen samar pagatzen zuten fonderian, bagenekien etxean.

– Jenaroren semea zera, ezta?

Nire abizena ikusirik, kontratua sinatzerakoan.

– Ez.

Gaztea behar zutelako hark txango politen baten aukera begitandu eragin zidan, nolakoa ote zen Tel-Aviv, kibutzetako sozialismoa benetakoa zenetz jakiteko baliagarria, ausaz.

Bekaina gaiztotu zidan aitak bazkaritan.

– Lotsa ematen al dik zeinen semea haizen esateak?

Galdera huraxe azken hiru urtean.

– Estudiatu ez balu ez zuten hartuko, zure semea delako hartuko zuten ala?

Sinaturikoa erakutsi nionean “Esaten nizun nik, hobe zenuela ingelesa ikastea, ez motorista, aitak nahi zuen bezala!”. Baina aitak ez zuen inoiz ulertuko emaztea ni bere semea ere banintzela ari zitzaiola esaten, aldarri egiten zuela, sinatu nuen kontratuaren zati bat berea zela, berak ere bazuela meriturik, berak: etxekoandre bat gizontasunaz ari sukalde zokotik.

– Oraindik ez duzu zoriondu.

Fonderiatik ekarri azkazaletako azken koipe gantza asperoiarekin harraskan kentzen ahalegintzen zelarik zitzaidan errespetagarria gizon garraztu hura, gure aita. Une hartan ordezka zezakeenagatik, ematen zidan irudiagatik. Debaldetan saiatuko nintzen ulertarazten ez nuela nahi zor ziezaion ezer inori niregatik, haren alderako ere erabiltzen nuela neukan harrotasun apurra. Gizon hark, alabaina, laztan egin zion amari inoizko batean. Edo ez, agian ez.

– Nolako lana eman ditek?

Ez pentsatzeko kibutzak ezagutuko nituenik esan zidan Gorkak, maltzur, Smoking papertxoa kopakoan bustitzen zuela Fariasaren muturrean itsasteko.

– Gomendio bat, utzi besteoi as nosas mulleres.

– Kala pribatua al daukazue hor?

– Laborategiko neskek pelikuletako erizainak ematen ditek. Ikusi behar dituk!

Tel-Avivera bidaltzekoak ingeniariek zirriborratzen zituzten, idazkia ingeleseratu besterik ez nuen egiten nik zertxobait hobeturik. Telefono dei batzuk hartu lanaren jarraipena egin txosten laburrak idatzi handik emandako aginduekin. Astelehenetan “Aquí Mario Kempes!” identifikatzen zen teknikari baten deia hartzen nuen, River Plate-ren porrokatua, Espainiako liga-

ko futbolari argentinar guztien berri galdetzen zidana. Prentsa erraldoi baten piezak moldeatu behar genituen, misilak egiteko zirela esaten zuen jendeak. Mario Kempesek “La Gorda” esaten zion funditzen ari ginen puskatzar hari, “¿Qué hubo de la Gorda?” nire ingelesa gaztelania gozoan mespretxatuz. Aipatu nion boikotaren aukera Gorkari, ahotan zebilen zurrumurrua.

– Mecajuen o can morto! Lanik gabe utzi behar gaituk!

Nik gordetzeko dirua liburuetarako disketarako, horrelakoak esaten zizkidan biok bakarrik geundenean, aitaren paga estrarekin oparitu nahi zidala trajea, traje gris bat. Trajea behar nukeela, amak.

– Grisa gainera?

– Grisak denekin konbinatzen du ondo.

– Batez ere porra beltza zintzilik daraman uhal beltzarekin, horrekin ongi traje grisak.

– Lepo zisne batekin esaterako.

Lepo zisneko poloak erabiltzen zituztela intelektualek, modan omen zegoen. “Intelektualek” hitza, amak. Betaurrekoak ere beharko nituela orduan. No-

lakoa nintzen. Ez nuela trajerik behar, ingeniariak ere ez zirela trajearekin ibiltzen.

– Ez dizut lanerako esaten.

Telebista piztu nuen solasa bertan behera lagatzeko.

Zein dira amaren ametsak?

Ez ditut maite zu sortu zintuzten gizonak.

Sumendiak bezala dekoratzen dut potakarrez neure burua.

Aitaren urteak, edo ezkondu zirenekoak, amak arkumea labean prestatzen zuen bazkari lepogarri haietarik batean jakin nuen trajearen ostean arreba zegoela, esan liteke, berarekin harrikoa egiten ari nintzelarik sukaldean.

– Neska hori altu samarra da...

– Nik arazoak, benetan, Mondrianekin dauzkat. Brahmsen bost sinfoniak ez zaizkit zailak egiten. Maite al duzu, Mondrianen musika?

– Ez zara horren graziosoa.

– Hala ere uzten dit bere igogailuan sartzen, neska horrek. Neska horretaz ari baldin bazara behintzat!

Platerak idortzen jarraitu zuen deus esan ez banu bezala, gizonkeria bat besterik ez.

– Neska batzuei gizonezkoak gustatzen zaizkie.

– Barka, txo, zuk baino hobeto ezagutzen ditut neskak.

Absurdua zen, benetan, arreba neskei buruz jardutea niri, gizonezkoekin borrokatzen ziren neskei buruz.

Nor da lotsa bere buruaz? Ni ere ez!

Euskalérri, egízko gizónen érri!

Esperma malkoak gure amen eskuetara Aste Santuko prozesioetan.

Goizeko zer ordu arte Maiatzaren Lehena plazako pausoei erne, barruan neukana ezin hitz eginik, zaunka mindu haiek. Sobera izoztu, sobera amets, sobera kezka, sobera erantzun erraz neure buruari, zalantza mingarri batzuk, ezin izan ninduen loak hartu.

“Gogorra zera zure arrebarekin”.

Zirириku biren eztanda, alerta seinalea galtzak janzten ari nintzela autodefentsa txandara jaisteko, badatozela, oihuak, lasterka batzuk, eskuko bafore sirenaren ulua kostako trenaren biaduktuaren arkupeetarik hezur guztiak inarrosten, gero poliziaren sirenak isiltasuna inposatzeko. Plazaren erdian bildu ziren aginduak hartzera, aginduak eman zizkieten. Despliege hura ez zen atxiloketak egiteko. Leihoetara ginen herri osoa, zer egin behar zuten. Telefonoa hartu zuen

amak. Lorontziren batzuen jausia karrikan, pontxo beroren batzuk, gero arrafagak, garrasiak.

– Josebek ez du hartzen.

– Lasai ama, lagun batzuen etxera joatekoa zen.

Taldetan banatu ziren herrian barrena, dendak tabernak atariak metrailatzen.

– Mercenarios...!

Gorkaren ahots beldurgarria zen leiho zubi garabi teilatu guztietarik mehatxuka, karrika estuetan oihartzun egiten zuela, hodi zabalaren hondorik ilunenetik zetorren durundio lupeztua.

– Mercenarios...! Franco é morto!

Amorratuagoak orduan tiroen zartak, triskantzaren harrabotsak.

– Todos os cans ides morrer!

Alde egin zutelarik kalera murgildu ginen gazteak aurrena, gero dendariak tabernariak, gizonezko asko, emakumezko asko, zenbat ume zalapartaka amen aginduei kasurik eman gabe. Ez zegoen kristal bat bera ere osorik plazako behetan. Txiza eginak ziren soto batzuetan, sarrailak tiroka ostikoka apurturik.

– Politika, momentu honetan, borroka armatua duk.

Optikaren bitrinan zeuden eguzkitako guztiak lapurtu zituzten beirak apurturik, Antxonek lan egiten zuen botikan ere harrapaketa egin zuten, ukenduak lasaigarriak barbiturikoak, adituak ziren, antza.

– Zer egin diegu guk horiei horrela etortzeko?

– Beldurra sartu nahi digute, ez dute herria mobilizatzea nahi.

– Zer egin diegun? Bizirik atera ginen trentaiseisko gerratik, gutxi iruditzen al zaizu?

Zimitorioko murala bere hartan utzi zuten, ez ziren ausartu eliza baten pareta fusilatzen, edo nahikoa bortxatua zegoen tirokatu behar izan gabe.

– Bortxatua? Pareta, bortxatua?

Gazte guztiak oholak garraio, gizonezko guztiak mailua eskuan puntapaxak ezpainetan, emakumezko guztiak dendak zabaltzen sotoak garbitzen, ume guztiak kaskilloak biltzen, kafea doan taberna guztietan, gaupasa iraultzailea, faxistek abandonatu gailurraz jabetzea, Aleksandra bere Leica M4arekin metrailaturiko ate leiho beira guztien aitzinean tripodea paratzen, une historikoa, zortzigarren egunaren bezpera.

– Noiztik bortxatzen dira irudiak, noiztik bortxatzen dira sinboloak?

– Barka ezazu, Aleksandra. Botikara noa, edukiko dute zer edo zer, ekarriko dizut.

Portu honetarik ehunka miliatara egon nahi nuen, mahatsa biltzen frantsesa hobetzen tulipanak drogatzen japoniera ikasten, euskaldunik topatuko ez nuen edonon batean, gutaz haraindiko jendea ezagutzeko premia neukan, Marcuserekin hitz egin, beste nonbaiteko poliziak harrikatu, harri berriak ikasi, Marilurekin etzan pintatu hezeko belarretan. Bai, Rikardok nora hoa marmarrean galdetu zidanean huraxe deskubritu nuen, momentu hartan geure buruaren aurkako borroka armatua zela politika zuzena egitea, tiro bana belaunean bihotzean garunean sinesmena behar zuten hitz guztiei. Kontu batzuk ahantzi, gorputza hebaindu, lo egin, bestelako eguzkitan itzarri, maitasunaren barne sintaxiaz jabetu: euskal herri nerea ezin zaitut maite.

Argia zegoen ehiztarien elkartean.

– Intendentzia, azpiegitura! Gu gabe zer eginik ez!

Baratxuri zopa ari ziren prestatzen pertz handi bitan Txurdo Maitane Garbiñe okindegitik ekarri berriarekin.

– Noiztik emakumezkoak sukaldean? Sukaldea emakumeen presondegia da!

– Isildu hadi, proba ezak hau.

– Asanbladak erabaki dik oraintxe herriko soziedade guztietan sarrera libre dutela, bihar bertan estatutu aldaketa dago. Hemen Garbiñe lehendakari, e Garbiñe?

Jendea sartzen hasi zen, goizeko laurak kukuka kukua.

– Egon al haiz Gorkarekin? Hirekin hitz egin behar omen dik.

Orriz beteak goizeko txandarako merkatuko plazatxoa elizako eskailerak fonderiako bidea, Lantegiko Batasunak asanblada deitzen zuen, erantzun bateratu bat eraso faxistei. Aldageletan sindikatu guztien oharrak geneuzkan paretan bart arratseko erasoari aurre egin behar geniola esanez. Ez zen makina bat ere martxan jarri, biltegi nagusira abiatu ginen denok. Laborategiko neskak, bata zuria gabe, ez ziren hain mulleres, ez ziruditen pelikuletako erizainak, lilura kontrastean zegoen, lanurdin koipeztatu hautseztatu haien aldean sortzen zuten txori kantuan. Bai, bataren azpian atorrarik gonarik erabiltzen ez omen zutelako hartan ere bai, zer duda egin, gezurra zen baina ho-

rrela izatea nahi zuten labeetan moldeoan errebaban, edan egiten zen burdinautsa hartan iraun ahal izateko, edan sorgortu aberetu, zapalketa hark bai. Latzenetarako gizon zaildu haiek ere, kaleko jantzian, ez ziren langileria. Menturaz hunkiberagoa izanen nintzatekeen lehenagoztik aurpegi haiek denak hitza hartu zutenek bezala goi batetik ikusi izan banitu: populu beharginaren buru pentsakorrak.

– Laneko lagunok, borrokako lagunok! Denok dakigu ezin direla labeak itzali. Gaur ere, lanuztea onartu duenean, direkzioak konpaño batzuk behartu ditu. Lagunok! Denok dakigu labeak mantentzeko nahikoak direla bost langile. Zergatik behartu ditu hogei, orain arte bostekin nahikoa zenean? Puntu hau eztabaidatzea eskatzen dut aurrena, zeren...

Uzteko amaitzen batek, ozen. Luisek prestigioa zeukan, isildu egin ziren.

– Hauxe besterik ez bukatzeko: greba egiteko askatasuna dago jokoan.

Berbaro bizi bat sortu zen kontainer gainetik jaitsitakoan megafonoa hurrengo hizlariari pasatzen zion bitartean, egia al zen, zergatik horrenbeste, arrazoia zeukala.

– Lankideok! Lankideok! Zertarako bildu gara gaur hemen? Eraso faxistei erantzuteko! Moldeoko atean kaskilloak azaldu dira, balak ere bai, mehatxatu egin gaituzte. Hori ez du direkzioak ordenatu. Luisek planteatzen duena komitetik bertatik bideratu leike, baina atzoko atakeari kalera irtenda erantzun behar diogu.

Txaloak jaso zituen Arrietak, lider handia zen, hiru barrualdi. Megafonoa eskatu zion Luisek, jende artetik erantzun zion.

– Konforme nago zurekin, lankidea, burkidea. Baina gaur hamabost konpaño eraso faxistari erantzun ezinda geratuko dira, lana uzten baldin badute santzionatu egingo dituztelako. Greba egiteko eskubidea dago jokoan, lagunok!

Arrazoia zeukala komentatu zuten ostera Arrieta txalotu zuten askok. Begi bistakoa zen Luisek karisma zeukala, baina ezin izan zituen menderatu, sindikatuek indarra ageri zuten ordurako, handik harat langileen batasuna paktatua izanen zen, izatez gerotan. Bulego berean idatziak ziruditen komunikatuak irakurri zituzten jendea epeltzeko, lortu zuten egun osoko greba ez ateratzea, indarrak gorde behar zirela esan zuen Gorkak berak ere, txaloak jaso zituen, harrigarria

zen hilabeteren buruan halako erraztasuna jendaurrean, harritu ninduen.

– Baina orain ez goaz kalera guregatik. Orain kalera goaz bat egiteko estatu faxista honek egunero, egunero erasotzen duen herriarekin...

Aliatu ona zuen ahotsa, indarra transmititzen zuen, Luisen limuriaz bestelakoa, modulatzen ikasia zen, bazekien besteen planteamenduen motela azaltzeko ausardiari kalitatea ematen zion patxada erakusten.

– Langileon borroka ez da soziala bakarrik, ez da antifrankista bakarrik.

Karriketan barrena abiatu ginen moiletaraino kontsignak oihuka, argazkiak tira ahala ibili zen Aleksandra, lantegi osoa kantari ukabilak goititurik, banderak inarroska pankartaren atzean, zortzigarren eguna horrela etorriko zela jakinarazi zien ingurukoei Gorkak Internazionalaren euskarazko letrarekin LABek atera berria zuen tarjeta tako bat ematen zidala.

– Hitzik ez, horri hitzik ez.

Lantegiko Batasunaren azken buletina banatzen ari zen Luis, guregana egin zuen.

– Hirekin hitz egin beharra zaukaat. Almazenean, ordu batean.

Uste nuen uzker saltzera igorriko zuela Gorkak, baina joatea komeni zitzaigula, horrelaxe, zitzaigula.

– Nik ere bazauzkat esateko batzuk berari, ikusiko duk.

Lekuko behar ninduela esanen nuke, Luisek eskatua baliatu behar zuela berari aurrez aurre esateko herriko paretetan idatzi ez zituen haiek. Ibilia amaitu genuelarik, kioskora igorik lantegiko komiteko idazkariak komunikatu bateratua irakurri ondoren ukabila erakutsi zueneko *Zuuutik lurrean zapalduta* ekin genion LABen txartela eskuetan geneukala, Internazionala euskaraz portualdean. Gorkak nagusitu gintuen erdarari, mezakantarien fede epela suspertu zuen organoa izan zen bere ahotsa han, infernupeko aingeruak bilduak geunden plazan, elizatik hur, gure hormamargo antikapitalista zaurituaren aitzinean, data historiko hartan.

Termo bat, bi edalontzi, ez zen harritu Gorkaren ondoan ikusi ninduelarik. Ez ekartzeko besterik, nahikoa neukala zigarroarekin. Zertarako hura, zer gertatzen zitzaion, ez al zuten aski langile katoliko biltzen guri kendu ziguten elkartean.

– Ni ere zuek bezala nagok, elizatik kanpo ari nauk.

Nekatuaren itxura zeukan, asanbladak atzera bota zizkion proposamen guztiak.

– Kasik okerragoa duk hori. Infiltratu bat haiz hemen.

Halako hunkidura bat sortzen zuen neke hark, Bixarberderen ahosoinuak bezala xarmatzen zuen Luisen marrantak. Termoa ireki zuen, kafe lurrin ederra isuriz. Zerbitzatu egin zuen.

– Zuek, gazteak, problema bezala ikusten zaituzte nomenklaturak, baina zuek ez zarete traba, zuek soluzioa zarete, zuek daukazue etorkizuna eskuan.

– Baina hi zeinekin hago, patroi batzuekin ez, beste batzuekin bai?

– Printzipioek balio ditek, ez egiturek.

Lekuko egon ez nintzen beste eztabaidaren baten luzapena iruditu zitzaidan solas hura, ezagutzen zuten elkar.

– Arrazoia daukak. Bihar, ziklostilatzeko makina elektrikoa ekarri behar diguk. Gaueko hamaiketan, Laubidetako bazterrean.

– Guk ere behar diagu makina hori. Hik badakik, Gorka, Lantegiko Batasunak behar duela, hi ere gureetakoa hintzen atzo arte. Hori esplikatu behar didak.

Biltegi erraldoi hartan, kontainerren kokapenak, kolore askotariko multzo txipitan, Mondrianen erakusketa handi bana osatzen zuen. Bere burua ez zekien artea, bestelako ipuintasuna, kresal usainekoa ez baina zirritu guztietatik sartzen zen errebabako burdinautsak lausotua, azal maiztukoa, esku traketsak edukia emandako koaderno bat.

– Hik ekartzak makina. Aspertuak gaudek vietnamitarekin, zuei pasako dizuegu. Hik ekartzak elektrikoa.

– Txantxetan ari haiz.

– Lasai, behar duzuenean ekarri niri testua, geuk inprimatuko dizkiagu orriak. Doan.

Zutitu egin zen gure Luis miretsia, bestela hitz eginen zuten ni bertan ez egotera.

– Esadak, Gorka, zergatik utzi duk Lantegiko Batasuna?

– Ba... entzun ezak ondo, Luis. Asanbladarena, hori joan duk, orain langileak afiliatu egin behar dik. Ez al duk ikasi gaurkoarekin?

– Elizatxoak sortu nahi dituzue? Erraz kaptatu haute!

– Elizatik kanpora omen habil... Horregatik behar duk asanblada, pulpitutik hitz egiteko.

– Sindikatuek zatitu egingo zigutek batasuna. Asanbladan jendeak diskutitu egiten dik, erabaki egiten dik, gaur bezala. Ez al da hala izan?

Erretzen jarraitu nuen bazter neutraletik, Gorkak berak irabazi beharreko borroka zen, irabaziko zuen, ikusteko nengoen gomitatua. Horregatik isildu nintzen han, Gorkak jakin behar zuen Luisek arrazoi puska bat zeukala.

– Ez al hidaken herorrek esan orain erakunde politikoak dauzkagula, elizpeko elkarteak ez daukala zentzurik? Ba egin itzazue zuek ere, egin ditzala elizak bere erakunde politikoak lantegietan, potrorik baldin badauka.

– Ondo asanblearioa hintzen orain hilabete batzuk.

– Orain bestelako jokoa zatorrek, gu ez gaituk urtuko idealismoan.

– Urrutira helduko haiz idealik gabe.

– Hauteskundeak zatozak. Delegatuak atera behar dizkiagu, ez diagu komitea beren eskuetan utziko.

– Baina ez al duk ikusten erabakitzeko eskubidea galduko dugula?

Arnasa hartu zuen sakon nire lagunak, hondorik ilunenetik hasi behar zela pentsatu nuen durundio durduzagarri hartan, baina eztiro egin zuen hitz, esaten zuena buruz ikasia, edo guztiz barneratua.

– Hik erlijioa egiten duk fabrikan, mezan bildu nahi gaituk. Gu alderantziz ari gaituk, sindikatua herriaren mugimenduan txertatzen, langileria banguardia politikora eramateko.

– Boto eskubideak ez dik langileria askatuko.

Tu egin zuen hautsetan Gorkak, amaitutzat eman zuen eztabaida.

– Jainkoa ez zagok barrikadaren alde egokian. Horixe duk hire arazoa, Luis.

Aterantz abiatu zen, arratsaldekoa hasteko tutuak jo baino lehen kafe bat hartzeko Leundarenean. Lagunarengana egin nuen nik ere despeditu gabe, zapaltzen nuen zigarrotik gorako behatu uzkur bat baino ez.

– Gorka!

Errukitu egin nintzaion, arazoa izanen ginen beretzako ere etorkizunaren umeok, Luisek bihotzez maite

zuen langileria sindikatuek hartu behar zuten, nomenklatura berri batek, mendeko.

– Konfunditu egin haiz ipurdiz, Luis.

Zinkaren metalgina gailendu zitzaion egiazko metalginari, tabernako doilorkeria hura bota zion burua jiratu gabe, biltegi osoa bete zuen kiratsa, eztabaida hartako galtzailea izan balitz bezain ozen higuin deitoragarri, gizon.

– Esan beharra al heukan?

Ez zidan ezer erantzun, damutua zegoela esanen nuke, nik hala nahi behintzat. Aurkari gaitza zen Luis, zorrotza, leuna, burutsua, bihoztuna. Menturaz ni bertan ez egotera arrazoia emanen zion Gorkak. Horretarako behar ninduela uste dut, indar hartzeko, osoro sinesten ez zituen haiek bota ahal izateko. Edo Luisen eztikeriari immunizatua zegoela ikus nezan.

– Aleksandrak esan zidaken badakitela zein izan ziren pareta bortxatu zutenak.

– Pareta bortxatu zutenak esan ziken?

– Bai, halaxe esan zidaken.

– Badakitela gainera? Zeinek zakitek?

– Besapeak depilatzen ez dituzten neskazahar horiek.

Ez galdetzeko nondik zekiten, bazekitela, ez gintezela gehiago saia garajeetan galdezka, kalterako ari ginela.

– Neskazahar horiek hik uste dukena baino arrazoi handiagoa zaukatek, Gorka.

Begira geratu zitzaidan delineaziorako eskailerären orpoan. Lantegiko ehun mila tonako hauts hura guztia harrotu zuen sudurretarik jaurti zuen erremuskadak.

– Ez zakiat zer ikusten diken hiri Mariluk!

Bazeukan, bazeukan ezinegon bat barruan, un can, ez morto hala ere, doente baizik, mindua, amorratua.

–7–

Hoztu egin zuen, euriari eman zion errukirik gabe, jausi ahala jausi ari zuen uraren gainean, harrien kontra, mendian behera uda betean negu edonon, Balmasedan. Beste gairik ez, eguraldia, ibiltariak. Arratsalde erdirako espero zituzten. Ogitarteko bat erosi nuen bidean jateko, Sopuertarako norantza hartu nuen bide erdian topatuko nituelakoan, neure ibilaldi partikularra. Erauntsi batek harrapatu ninduen hiru bat kilometro egina nintzelarik, lantegi abandonatu baten sarrerako markesinan gerizatu nintzen atertu arte. Zangoak oinetako barruan plastaka itzuli nintzen stop egin nahi ezik Cadaguak ihitzetan uzten zituen hondakin domestikoak zenbatuz San Severino plazaraino. Berotu ezinean ibili nintzen kaferik kafe dendak zabaldu zituzten arte, bilatu nuen behar nuena, galtzetin pare bat, ez, bi, emadazu beste pare bat, hori ez, hauxe, erosi nuen *Deia* bi, itzuli nintzen plazako tabernara, eskatu nuen grog bat. Botak askatu, *Deia* haietarik batekin pilota bana egin botetan sartzeko, galtzetinak kendu, berriak jantzi, beste *Deia* zabaldu, kanelarik gabeko grog ederra dastatu, Stuyvesant bat piztu.

“...hire indarraren beharra diagu gure indarrarekin batera...”

Hirugarren Stuyvesant hura txirtxilatu, *Deia* bildu, beste *Deia* erdiak botetarik atera, oinak botetan hilobiratu, lotu, ordaindu, ozengailuek hedatzen zuten lurrinean zorabiatu, zenbat ikurrin, zenbat oihu, bazetozen, ateri, autoak aurrena, ibiltariak ondotik ezkiek apaintzen zuten inguradan, txaloak, txaloak, malkoak. Espaloiaren ertzean geratu nintzen, euri arteko eguzkitan urduri, erre gabe, zergatik urduri. “Partidu bat zegoelakoan, baina oker nengoen”. Ez nintzen gauza argudio logiko bi kateatzeko, her hand inside my cranium nengoen, zigarro bat atera, piztu jaurti zanpatu egin nuen, espaloitik putzutxora ostikatu, kondoi likindu hori. Bertan ziren Askatasunaren Ibilaldiko B kolumnakoak udaletxeko plazarantz, Santa Kruz apaizaren makilariak, otsoak Varsovian, tarteko bidelagunak ondotik, berrehun, bostehun. Eskua jaso nuen diosalean, espaloitik mugitzeke, eskuan “Hemen naiz!” idatzia baneuka moduan. Ikusi ninduen, ahora eraman zuen eskua, keinu hark handitu egin zizkion begiak, gero jaso egin zuen “Nik ere hala zaitut!” irakurri nuen, zekarren pankarta aldamenekoari laga, hastan-

du egin zen tropatik, nire ezpainetaraino etorri zen gazte, izerdi, alegera: Atharratzeko zitroin doratua.

– Non ibili zara?

Berandutu izan banintz bezala Antxeta Bluak taldearen doinu melodikoetan gozatzeko egina genukeen hitzorduan.

– Pi de la Serraren kontzertua antolatu dugu herrian. Gonbidatu nahi zintudan, zure bila ibili naiz...

Sarrerak atera nituen trenkaren sakelatik Pi de la Serra irakur zezan, egundokoa.

– Ez al da egundokoa Pi de la Serra gure herrian?

Egia zela frogatzeko erakutsi nizkion, Pi de la Serra guk ekarria, inoiz halakorik, Olimpiatik helduko zen zuzenean.

– Mitina dago orain, buruz dakit.

Zubi zaharraren ingurura urrundu ginen, Cristalería Bilbainaren aitzinean gelditu ginen beirazko mosaiko liluragarriei beha, gu haiei beha baina elkarri beha bitrinaren isladuran.

– Benetan nahi al duzu azaltzea portualdean zurekin?

Ez, ez zituen begiak epeldu, ez zegoen ironiarik galderan. Inozoturik utzi ninduen, arestian eman zidan musua guztiz emana zen.

– Zure indarra behar dut.

Hodeiak teilatuak zanpatzen, ibaia handitua, lagunek Mariluren galde kantal guztietan, uholdeak leherturiko zubia bezala ginen eten elkarren bila San Lorenzo auzuneko bazter laiotzetan musuka.

– Lotan geratuko zara, ezta?

Elkar ito fonderiako saldan urtu aitzin, voltaia handiko laztura ezezagun batek goritzen gintuen nose in flames.

– Horrela nahi al zenuen gertatzea?

Gorritasuna gorantz Mariluren aurpegian, marmoka txipi bat kontrasteko likidoz betetzen masailalboen leuna marrazteko. Itsasbeheran olaxtek Purrustarriko haitza miazkatzen duten eztitasunaz egin nion laztan.

Sinatu nuen finikitoa, zarratu nuen artoski zuzendaritza sozialeko atea, neure hiztegia boligrafoak bloka jasotzera hurbildu nintzen salmentetako sekziora. Telefonoa mahai gainean, orduan ikusi nuen benetan aurrenekoz. Nuria egokitu zitzaidan zentralitan, Tel-Avivera bai, eman nion, egin zidan.

– Mario Kempes?

Non ezkutatua nintzen, astelehen osoa nire bila Ligako berri jakin ezinik. Arazoak, Mario, La Gordarekin arazoak edukiko zituztela.

– Hemen asanblada deitu dute, uste dut bertan behera utzi beharko duela direkzioak zuen pedidoa... Propalestinoz betea dago lantegia, ez daukazue zer eginik.

Eskuin aldera itzuli nuen burua tanpez, aho zabalik neuzkan beha Navas, Iriarte, Kortazar. Entzuterik eman gabe entzun nuen futbolzale sionistaren lantua bakelitak belarria berotzen zidala.

– Bai, baina politika integratua daukagu lanean, hor bezala.

Iriarte, erosketetako arduraduna, altxatu egin zen nireganako asmoz. Zutitu egin nintzen ni ere. Ez zuen aurrera egin, entzun egin behar izan zuen.

– Laburtuz, Mario, sar ditzazuela zeuen misilak ipurtzulotik.

Estropezu egin zuen aurikularra hartzera oldartu zenean. Bizkarra eman nien denei, atea zabal utzi nuen jalgi nintzelarik. Nuriaren ondotik pasatu nintzen ate nagusira baino lehen. Ez zidan bestelakorik egin, adarkada huraxe aurikularrek estuturiko buruarekin adio gisa eskuak kable mataza hartan higitzen zituela

lineen zulotxoetan sartu-ateraka. Entzuten egona ez? Begia kliskatu nion konplize ustean: hiru miliako aire turrusta sudurretara, ehunka antxeta hegalka biriketan. Mailu neumatikoen zarrapoak espaloietan, minio planta berriaren aurkako afixak platanondo adarretan, butano bonbona hutsen talkaren danga etxekoandreei deika, sopletearen milaka pindar atea zabaldutako atelierren ilunetik goizeko azpilainora, ama guztiak arrandegietara gantza fuel pintura kiratsak harturiko karrika hezeetan hulezko poltsak besatxokoan, kuarteleko sekretak ezer ez bezala, baserritarren marmitak betiko leku estrategikoetan, ijitoak frontoian esku hutsik. Nola ez ziren etorriko gure herrira Southamptondik?

Hitz egin dezagun kalean, ama.

Gero, gero joanen gara biok jostundegira.

Orain emadazu besoa, goazen kafetegira, kruasant beroak dauzkate hor.

Aitak ez du semea berriro aurrez aurre ikusi beharko sugearena egiten dutenetan uzkurrei lana bertan uzteko zemaika.

Ados, Gorka, hala nauk, bazakiat, indibidualista burges koskorra, diletante bat, zelako ergela, mentalitateak aldatzen ahal direla hitzak landuz, horixe pen-

tsatzerainokoa, gure burua errealitatean ekinduz aldatuko ez bagenu bezala. Errealitatean joka ari nauk ordea, laster ez nauk ezagutuko.

Kafe bat bermeotarrarenean, txarra, emaztea zegoen oraindik atenditzen. Platertxotan jarriak zeuzkan oliba triste haietarik bat nabarmenki ahoraturik zergatu nuen agurtzerakoan.

–Kafearen gainetik?

Ostera luze bat egin nuen portuaren inguru osoan hezurtxoa ahoan nerabilela, olibaren hezur bana azal zuriaren azpian Mariluren txurmioak, Jaengo olibazale harroek harentzat bilduak ale bakaneneko uztan.

Zer ote handiz nizkion emanak *La Voz de España*-ren ez baina *Deia*-ren orri batean bildu galtzetinak.

Musuan estutu zituen ibilaldirik gabeko artilea usainduz algara begietarik erakusteko, nolako atsegintasuna hedatu zuen kandela mutur batek biluzitako ganbara zoko hartan.

“Emango al zenidake kontzertuko sarrera?”.

“Bota egin ditut, baina lortuko ditut nahi baduzu”.

“Ez naiz joango, ahizpa Ibilaldiko ekitaldi nagusira azalduko da Iruñan, egun horretan da”.

Atera nituen hezur koloreko paperean urdin anil bizian inprimaturiko sarrera historiko haiek, 1977 Abuztuak 28 PI DE LA SERRA Cine Moderno.

“Lau urte egon da errefuxiatua”.

Teherango gazteen kulunkaren eztia Shak eraiki urkamendian.

“Gorde egin nahi nuke sarrera hori”.

Zeinen ederra orduan, nire begietan goiti barneratzen zelarik emana, milaka umeren ama gozoa izateko ikaslea Marilu, Marilu andereñoa Marilu mendizalea Marilu ahizpa Marilu topikoa, Marilu bularretakoduna. Eskuetan hartu nizkion masailak, ezpainak haginkatu nizkion zakar. Begiak zabaldu zituen berak ere, elkarri geratu ginen lipar batez itsu. Orduan maitasuna esan litekeen zer edo zertan hasi nintzen, ahal nuen bezain hatseko, baratxe, besterekin ikasitakoak atzendu nahirik, xügün, marmokaren erredurak ordainduz, ahotik jaulkitzen zitzaizkigun berbak ezin sinetsirik.

“Horrela nahi nuen gertatzea, bai”.

Ubarroiak ikustera ekarriko nuen, Tximistakurratuko kostara, Kredoarri Itzalarri Sorginarrira, polizien kontroletarik urrun, mitinetarik urrun, edo itsasgorako bagarik amorratuenak sosegatzen diren arroka eder hauetara, Purrustarrira, Mitxitxolatik behera amildu-

rik, Urgaizto errekatik barrena, inor behar ez nuen etzalekura, bazekiena entzun zezan, oin azpian lehertzeko piztia nintzela maiteki esateko modua emanen zidan ezaxola ederrera.

Orain udal bandak urteetan meza nagusiaren osteko emanaldia *El sitio de Zaragoza* patriotikoa azkentzen zuen bezain bihozti jotako *Gernikako arbola* aberrianoa oparitzen zigun kioskoaren ondoan, eskudelean Pi de la Serraren kontzertua munduari barreiatzen zion pankartaren aurrean, Maiatzaren Lehenaren plazako putzuen artean naufrago, deika portualdeko Ezker Sindikaleko burua, fonderiako komiteko idazkaria, niregana.

– Eredu txarra hintzen bulegoetan, horregatik bota haute!

– Ni ez ninduken eredu. Ezin nintekeen izan, hilabete batzuetarako nengoken. Zer habil ordu honetan, errelebotan hasi al haiz?

Eskuan zeukan errezeta erakutsi zidan. Erdi gripe batek hankaren gainean joateko ere gauza ez zela omen zeukan hebaindurik.

– Nahi baduk, erreadmisioa eskatuko diagu.

– Ez, ez galdu indarrik diletante burges batengatik.

– Isilik egon hadi! Printzipio kontua duk, gaur hi bihar ni!

Nola ez azaldu semearen alde? Bi orduko lanuzte bat? Zer esanen zioten orduan gainerako zintzoek? Hautatu beharraren latza.

– Zeri egiten diok barre?

– Ezer ez, aitarekin hizketan.

– Ez al daukak astelehenekо huts egitea justifikatzeko moduren bat?

– Oso kausa justifikatua izan zuan, baina ez lukete onartuko.

Dolumina ematen zidalako aierua egin zuen begiak bildurik kokotsa ezpainetara zimurtuz, isileko lanak bere ezinbestekoak zeuzkala pentsatu zuen noski, nire isileko lanak kandela mutur batek jantzi gintuen ganbara zoko hartan: kate honek lotzen nau, kate honek nau hiltzen, kate honen ederrak nau gogorragotzen.

– Hementxe dauzkak. Hau duk sotokoa, beste hau atekoa. Erdian utziko diat alokairua.

Mailu-igitaiari lotua zegoen giltza parea erakusten zidala.

– Ezin diat onartu, tratua ez zuken horrela.

Eskua sorbaldan tinkatu zidan buruz buru bere deklarazioa egiteko, deklaratu egin zuen hantxe, manifestaldien amaieran kioskoan megafonoa harturik egiten zuen bezain ozen, denda batetik bestera zebiltzan etxekoandreek ere gogoan har zezaten.

– Lemazain handiak esaten digun bezala, teoria justu bat edukitzea ez duk nahikoa, praktikara eraman behar duk.

Ez nizkion hartu, postariaren trebeziaz utzi zituen berak jausten nire alkandoraren sakelan.

–Hi, mesede bat… Zer esan nahi dik indazu albiristea horrek?

Lapur hasiberria baino arinago jaitsi nintzen amarenetik mandatuak egiteko poltsa zahar batean Olivettia nekarrela. Upeldegi zaharreko kantaletik hartu nuen General Molarena izandako karrikara Leundaneko bezeroek ikus ez nintzaten sotoko atea irekitzen.

Begiak margoturik etorriko zen, niretzat.

Ate hartatik sartuko ginen, ate hartatik gurera.

Hiztegia aldatzeko tekla joka gure gorputz biluzietan.

Sekula ez larru. Sekula ez txorta. Hitzetan hasten da zapalketa. Sekula ez barretxorik. Ederkeria. Sekula

ez xarmagarria zira. Ar fabrika, har fabrika. Barretxo barkabera batetik hasten da zapalketa. Hirugarren lotura. Gizonezkoaren begiak estutua. Gure begiaren beldur. Gure begirako dira. Nire begiaren beldur. Harreman intelektuala sobera erraza da. Izerditan nengoen, leihoak zabaldu nituen, hodei konkor ilunak.

Euria ari du Balmasedan
zubi zaharraren harrian
maitaleek dezaten edan
aho bateko egarrian

Jalgi egin nintzen xaboia espartzua ozpina komuneko papera sukaldeko zapiak pintura brosa erostera. Geroago joanen nintzen Rikardok egin zuen Pi de la Serraren afixa ederraren ale baten bila deposituan geneuzkan Aleksandraren garajera, bainugelako kraka guztia garbitutakoan.

Atea zabalik zeukan, horrela edukitzen zuen gehienetan. Espaloikoen ikusmina tentatzeko, argazki nabarmenen bat edo margotu hozki emangarriren bat paratzen zuen zehar behako batean harrapatzeko

gisan. Oraingoan automozio alemanaren azukre kuboa zeukan aldarean, horiz gorriz beltzez berdez pintarratua. Ulrike Meinhofek errekisatua ote Stuttgarten? Rodtxenkorena izan omen zitekeen andamiajeari beha geratu nintzen luzaz, egongela berrituko pareta nagusian nolako efektua eginen lukeen hausnartzen ari denaren kontzientziaz. Lanean ari zen mahaitik burua jasotzeke jarraitu zuen Aleksandrak. Sama mutildu hari beha ohartu nintzen ez geniola inoiz diosaleko musurik eman elkarri. Gure uztarketak haragiaren atsegina baino ez zirela izan esan banio, estali ezineko harrotasuna erakutsiko zidakeen ahoz ez bazen begiz.

– Zer ari zara, soldatzen?

Pirograbatua egiteko tresnatxoa zeukan eskuan, “labana beroa” zela esan zidan, baina ez zen zurarekin ari.

– Begira ezazu diapo hori.

Kutxa gardenaren gainean zegoen, lanpara piztu nuenean kolore biziko txirikorda anarkiko bat azaldu zen.

– Handian proiektatuta izugarria da.

– Traste horrekin lortu al duzu hori?

– Nire talentuarekin.

Tenperatura desberdinak aplikatuz zeluloidea erre gabe, deformatu arin bat emanik.

– Zineko pantailan proiektatuko ditut atzetik kontzertuan.

Demostrazio bat egin zidan argiak amataturik diapositiba dozena batekin. Harrigarria zen plastikoaren erredura mailek ematen ahal zuten margotasuna, odola galipota ugerra garia muskerra, fuela uretan egosten, ikusmenaren psikodelia, euforia putzu bat begietara.

– Kontzertua egiten bada, noski.

– Baimena daukagu, ez dago arazorik.

– Jokinek kantu bat abestu nahi du aurretik, istiluak dauzkazue.

– Bixarberdek jo egin nahi duela Pi de la Serraren kontzertuan?

– Debate bat abiatu behar omen da.

Egidan barre bai, Aleksandra. Gaia berria da izan ere, artistaren papera liberamendu prozesuan. Sarrerak garestiak dira. Zergatik egin behar du lo hotel batean? Hamaika portuetxek hartuko lukete doan pozik. Zenbat kobratu behar du? Herriak kulturaren eskubidea dauka. Zergatik antolatu da leku itxi batean? Zergatik ez du jo behar herriko kantariekin? Artistaren pa-

pera liberamendu prozesuan... Aleksandra diapo liluragarriak proiektatzen Bixarberderen koipea tapatzeko.

– Ikusi laborategian.

Idortzen eskegi positibatuen artean errautsez zikindutako hostoa, errautsez Bixarberderen Silver Match estetikoaren garretan.

su hartaz
errautsak geratuko dira
iraungo duen bakarra
errautsa izotzezko
musu hartaz

– Polita, ezta?

– Pesimista, burutik egon behar du egileak.

– Abestu nahi duen kantua da. Campari du izena.

Altxatu egin zen labana beroa eskuan, bata kolore desberdinetako odolez apainduriko hortzalari bat irudi.

– Zergatik esan duzu pesimista dela? Errautsaren azpian ilintia dago.

– Zuk uste duzu hori esan nahi duela poemak?

– Ilintiari putz eginez gero, garra sortzen da.

– Camparia odola ere izan liteke.

Birjinitateaz ari ote nintzen usteko zuen, halako begitartea, lotura iluna nolanahi ere, ezin zuen gerezitik obuluetaraino.

– Bai, noski, odola... Ez zitzaidan bururatu.

Manu azaldu zen atean, Manu esaten genion, materialak ekartzen zizkigun gero eztabaidatzeko, goiherriarra zen ezin ukatuan lapurterazko hitzak, seduktore nabarmen, erabiltzen zituen arren. Ez nekien horrelako konfiantza zeukanik Aleksandrarekin. Formuletan hitz egiten zuen, guri emandako materialetan ageri ziren argudioak esaten zituen hitzez hitz, masa-banguardia harremana, autoeraketa, ildo nagusia, ildoa, ildoa. Gorkak gogor egiten zion, azaltzen zenetan. Autoeraketaren forma nagusia zirela alderdiak, sindikatuak. Baina Manuk herria erakusten zion, norekin zegoen herria, ez talde politikoekin, bat eginik zebilen amnistia eske, askatasun eske, batasun zabalean. Errenteriako asanblada ezagutuko ez bagenu bezala. Luisen ezpalekoa ematen zuen. Egun batzuen buruan Manuk esana errepikatzen hasiko zen Xabier, ez zeukan irakurri beharrik.

– Ez al duzue petardoa entzun?

Poza ageri zuen masailetan, ekintza bat.

– Espainiako Armadako itsasontzi bat irauli dute kaian. Komando submarinisten lana izan da.

Arrapastaka erantzi zuen bata Aleksandrak, karrete batzuk hartu zituen frigorifikotik bere kutxatxo magikoa iduneko bazihoala esanez, itxaroteko bertan. Ordurako zain edukiko nituela ikasleak, bakarrik utzi nuen mingainaren exhibizionista hura labana beroarekin jardun zezan. Nire izerdia zeukan koltxoneta hartan emanen zuen gaua, biharamunean mugaz beste aldera pasatzeko. Aski nabarmena egin zitzaidan horretan ere.

Gau eskolan ez zegoen beste gairik, kostazainen bafore zaharra tripaz gora zegoela. Itsasoko elementuekin osaturiko ariketak landu genituen. Aztoramen batean hondoratu nintzen ikasle batek “Xabierrek oso ondo egin lezake igeri” adibidetu zuenean.

–8–

Boga-bogak ez zeukan mastarik ez oihalik, yatea hitz goititua bada ere yate batean geundela eman genezake, 80 zaldiko Mercury bat, kabina sukalde txipiarekin, frigoa, biko etzangua, baina batez ere biztanle batzuk zeuzkan une hartan txalet txipi hark, udako igande arratsaldeetan markako dendetan erosi modako betaurrekoekin hipodromora joaten ahal ziren horietarik.

– Zenbat behar ote du txalupa honek, ba, esate baterako, Bilbora arribatzeko?

– Astebete, gehiago agian.

Berehala itzuli zen bere senera, ez zen guztiz menditarra.

– Nolako itsasoa, jakina! Pitoa naiz gero!

Zeinen kontent Manu galdera barkagarriak egiten, krema hedatzen nesken bizkarrean, Aleksandraren Super 8arekin paisaia filmatzen ni metrailatzen, palmondoz gerizaturiko igerileku pribatuaren ertzean zegoen Sorginarritik milia batera. Kanaberei erreparatzen nien nik, Aleksandrak “Edurne, Zumaiako lehengusina” aurkeztu zidan haren maniobrei, kostazainen

zodiac grisa inguratzen zen aldiro brankako kubertan titiz goiti zeharrean jarraitu ordez bizkarra tenteturik krema ematen hasten zenean.

– Zaila al da kapitain titulua ateratzea?

– Txalupa txikiotarako ez, zailena motor kontuak.

Motorraz interesatu zen orduan Manu, ongi funtzionatzen zuenetz, ez ote zuen zarata handia ateratzen. Istriborreko kanabera makurtu egin zen tanpez, “Agudo! Agudo!” hasi zen mugi nendila, yes sir, atera nuen eraztunetarik tira zakar bat eginik, gero biltzen hasi nintzen eztiro Manuk Hemingway filmatzen zuen bitartean. Txopa aldera heldu zen Edurne oihu txipitan ugatzak zotinka. Braboak txaloak bizkarrekoak lupia azaldu zelarik labana hotz bat bezain zilar, ale ona. Manuk bere burua bozkatu sukaldari, Aleksandra eraman zuen laguntzaile.

– Kostazainak ohituak daude neskak biluzik ikusten.

Algara egin zuen bizkarra atzerantz urrunduz.

– Zu ez?

Matzakuko muturra han behean, kulunka ahalketuren bat aldian behin. Zentinela gisa estropadako balizak bokalearen sarreran, gure arraunlariek zer eginik ez kalma hartan. Amua beitatu nuen.

– Utzidazu botatzen!

Antzeztu nion etxada, kontu egiteko jausi gabe. Ez zuen hitzik atera. Kendu zidan, hartu zuen irakatsi nion jarrera. Urrun egin zuen txonbo berunak, ez zuen estreina.

– Lehen aldia izateko ez da gaizki egon, ezta?

Beste kanabera bildu zuen. Beita jana zeukan hark ere. Zizareei buruz jardun zuen, bizimodu petrala.

– Zentral termikoa dagoen horretan ibiltzen ginen umetan zizaretan, basatzan harrotua eginda. Sos batzuk ematen zizkiguten.

– Gu almejatan, eskuare txikiarekin hondartzan.

Hemen ez geneukan hondartzarik. Gure amek ez zuten inoiz jantzi trajebainurik. Bestondoa sendatzeko etzaten ginen arroka berotuetan. Nire ondoko aulki tolesgarrian jesarri zen. Ez zen zodiaca berriz azaldu, hortzak izerditzeko lurrina iritsi zen laster sukaldetik.

– Aleksandrak esan dit oso interesgarria zarela.

Kubertako oholen bernizadurari beha geratu nintzen. Lakartua neukan eztarria.

– Ez dut uste...

Altu samarrak niretzat, bai, gure neska emantzipatuak, ni sobera exotikoa bezalaxe noski erdiz se-

duktore erdiz erdeinutzaile *womens in the women's revolution* zebiltzan beldurgarri haientzat.

– Interesgarriak, zuek zarete.

Izter gaineko ileak ferekatu zizkidan bere Rayban Aviator betaurrekoen adarrarekin, aurpegira egin niezaion. Orduan ikusi ahal izan nizkion begiak, mizpira heltzaka bana.

– Ni ez naiz yateduna, ni titiduna naiz.

Burua makurtu nuen ostera larruazala ukitu gabe betaurrekoek nire bixarretan egiten zuten joan-etorria dastatuz.

– Ez nekien.

Pazientzia apur bat daukanaren apaltasunaz egin zidan.

– Baina ez nazazula jostailutzat hartu.

Andrakilak kasete bat zeukan barruan, eslogan bat zen, hitz haiek ez zeukaten haririk bere portaearekin, ezaguna zitzaidan kontrakar hura.

–Jostailua neu naiz hemen.

Aleksandrarekin egiten nuena baimendurik egiten nuen, bestek agintzen zuen neure buruan, "Ez pentsa ni zure atseginerako haragia naizenik" esaten zidan arnasa berdintzen zitzaigunean.

Betaurrekoak jantzi zituen. Malkoren bat, agian?

Kapritxotan ohitua zen, nitaz jabetzen ahal zela erakutsi zidan oiloipurdia sortzen zuen fereka jolasti harekin, bazekien berak ere interesgarria izaten komantxe arapajo kiowa txeieneokin. Edurnek, esaldi harekin, klase borroka egin zuen feminismoz apaindurik: touche pas à la femme blanche.

– Hau bai artea!

Sukaldeko eskunarrutan zekarren plantxagainekoa ikusgarri Manuk. Platerak, furxetak, hala esan zuen banatzerakoan, furxetak, zapiak, ogia, zamaua godaletak banatu zituen Aleksandrak Niveako plastikozko zorro handi batetik.

– Hau egin duena bai artista.

– Zer, ez ditek pikatzen?

Nola filmatu behar gintuen hasi zitzaion Edurneri esplikatzen. Edurnek ez zekielakoa jo zion, argitasunei baietz eginez buruarekin. Aulkiak bildu nituen. Cinzano bonbila bat ekarri zuen azkenik Aleksandrak. Pintzetarik gabe banatu zituen izotz kozkorrak godaletetan.

– Igandea denez, bermuta.

Niri beha esana, aitor dezadan detailea.

– Bere azeitunarekin.

Zein ote zen orgasmoaren estrategia politikoa?

Aleksandra txotxak ziztatzen Mariluren obuluetan.

Ni zeluloidean betikotzen gaztaro txoro baten oroigarri.

Labarrek igorri oihartzunen bat ekarri nahi izan nuen biriken betealdian, kontsolagarriren bat nire zelula matxinatuenei.

– Topa egingo dugu, ala?

Atzamarrak Aceitunas la Española potoan sartzen zituela zehaztu zuen Manuk Edurneren proposamena.

– Tripaz gora flotatuko duten guztiengatik, kar, kar!

Godaletak bete zituen Aleksandrak zamaua zikindu gabe, hartu zituzten, goititu, kriskitindu.

– Zuk ez al duzu topa egin behar?

Orduantxe egokiera kamera hura putzura botatzeko, baina ez nuen egin, tapa ireki bobina atera besterik ez.

– Baina zer ari zara!

Hari luzeko yo-yo bat bezala firrilkatu nuen.

– Banoa.

– Bazoazela? Nora?

– Campari bila!

Arropa neukan plastikozko kirol-poltsa hartu nuen lepoan.

– Bi hilabete zeramazkien kostazainak lotua, txatartzera atoiatzeko zain.

Manu pipa-kirten haren atzaparra besoaren brastako batekin libratuz kablea etendako igogailuaren etsian egin nuen jauzi amorru meta batetik. Ez dakienaren gisan ekin nion, besoak ardatzetik eten beharrean, lehenago joko zuten azpia ni harrapatu baino. Erdira bezala gelditu behar izan nuen. Edurnek largabistetan nindukan. Astiro ekin nion ostera, besoa jasoz agurtu ondoren. Aleksandra zerga iraultzailean zegokion kuota Manuri ordaintzen kabinako etzanguan, huraxe begitandu desiratu izan nuen urruntze hartan. Meko eginik heldu nintzen Arando Haundiaren bagarrira, urratu batzuk egin nituen lehorreratu ezinik esku-zangoetan. Atera nituen arropa bustiak, eguzkitan etzan nintzen burua irakiten.

Harrotu da berriz bion etzana zeukan belarra.

Errauts honen azpian ez dago berorik.

Esaten dudana izanen naiz.

Ilunaurrea arte egon nintzaien zelatan, ez ziren mugitu, musika zatiak iristen zitzaizkidan aldizka. Auzo liberatuko biztanle bakarra izan nintzen han, haragi gorrian nengoen oskola galdurik gorrotoz gainezka, izenbako harkaitzarte batean jausia, ipuintasunik

ez, bere istorioa zeukan ontzitxoari beha, txalupak olaxtak otordu bat itsasoan betikotzeko Super 8ko kamera bat behar zutenak mespretxatzen, zer nintzen ni zisne haren barruan.

Tximino laztangarria.

Botoiz beteriko plaka edozein solairutara sakatzeko.

Lema ondoan kokatua ezerez bat bezala ardurarik handienaz kokatua zegoen plastikozko tabletatxo hasi hartako piluletarik edozein.

Platako farolaren argia nabarmentzen hasia zela konturatu nintzelarik uretara jaurti nuen harrika idortu ezineko zigarro paketea, abiatu egin nintzen. Itzuli osoa eman nion portuari bagoi garabi bafore kontainerrei maiteaz galdezka, orduan, neure buruari galdezka, Tximistakurratuko kostatik, Kredoarri Itzalarri Sorginarritik, ideia zuzenak apurtzen nituen arroka eder hartan, Purrustarrin bertan, Urgaizto errekatik, Mitxitxolatik ezin urrunago, puntala debileta gindela lo zeuzkan ontzi sobietikoari beha ohartemanik biharamunean Aleksandrak hartuko zituela tresna haiek, Aleksandrak aginduko zuela bokalerantz hartzeko maniobra, Aleksandrak ez beste Aleksandrak, a nosa muller traballadorak, jatorrizkoak, Vladimir lauso guztiak

baino zoragarriagoa genuen hark, laborategiko batan bizi zenak, alderdiko komisarioaren baimenik gabe gure herrian lehorreraturik, menturaz, lentzeria kapitalistari polita zeritzolako bere titi ahitu astundu nekatuentzat fantasiazko bularretakoak erosiko zituenak, osaba Tomen aitziko izeba Aleksandrak.

Yate txipi bat Campari kopan hondoratua.

Mondrianen geometria igogailuaren kristalezko aterako.

Kargaderoko zubiaren hezurdurari beha geratu nintzen gazte hura.

Ama beste ideia batekin zebilen, hartua nintzen etxean telefonoa jartzeko emanen zidan trajerako berezia zeukan dirua. Dutxan nengoela arreba sumatu nuen bisitan, afaritan geratuko zela. Aita gero. Gorkari deitu nion, kopa on bana hartu behar genuela afalondoan. Arrebak hitz egin zuen gehienbat, mesedea egin zidan.

– Bazoaz? Bihar etorri e?

Espaloian bertan jakin nahi izan zuen Gorkak zer neukan ospatzeko. Igarri ziola, ospakizunetan geun-

dela, kopako on bana bina hamarna hartu behar genuela.

– Ez esan, superatu egin duk harreman intelektuala.

– Aleksandraz duk, bai.

– Beteta laga al duk?

Julianenean sartu ginen, berandu arte ematen zuen. Mahai guztiak hutsik, zokoenekora. Errobiren lehen diska ipini zuen etxeko seme gazteak, musika ekipoa zeukan taberna bakarra zen.

– Hik irakurriak dauzkak klasikoak, marxistak.

– Askorik ez, formakuntzako txarletan ematen zizkiguten apunte haiek, ezer gutxi besterik, Mandel, Sweezy, Poulantzas.

– Ezaguna egiten al zaik “klase gorrotoa”? Nik nonbait irakurria zaukaat.

Zurekin gertatua berritu nion nola edo hala, gorrotoak hartu ninduela, gorroto hura ez zela pertsonala, pertsona hark ordezkatzen zuenari hartu niola.

– Bob Dylanek nazka ematen digun moduan, esan nahi duk.

– Bixarberde gorrotatzen dugun bezala, bai.

Deskubrimendu gaitza zela, horixe ari ginela ospatzen. Smoking papertxoan bildua zeukan puruaren

muturra busti zuen Gorkak whiskyan, ezpainetan ibili zuen.

–Aleksandrak gizonezkoen balio estetikoak erabiltzen dizkik emakume librea izateko, bere pribilegio burgesak ukatu gabe.

–Orain konturatu al haiz?

–Ez, baina gertatzen duk ez duela ikusten, guk ez daukagulako nahikoa *class appeal* geuregana ekartzeko.

Kopeta zimurtu zuen Gorkak, interesatu egin zitzaion.

–Neskazahar horiek gure larrua nahi ditek, besterik ez.

–Baina arrazoia zeukatek emakume bezala. Aleksandrak ere bai.

Nola ekarri feminismoa gure ederrera? Nola eman gure zakarra feminismoari? Portu bazterretik nentorrela ohartu nintzen kaietan badagoela edertasun bat, yaterik onenarena baino estetikoagoa, edertasun praktikoa delako. Portua kantu handi bat zen, dinamikoa, etengabeko mugimenduan. Fonderian dozenaka mondrian zeuden bezala.

–Emakumezkoak ere klasetan banatzen dituk. Bizi izan ez dituzuen gauza askori buruz idazten duzue intelektualok.

– Barka ezak, Gorka. Nik ez diat idazten.

– Ez, hi dirua behar dualako joan izan haiz bakailaoaren deskargara. Proletarioak ere horregatik joaten dituk lanera, diruagatik, ez iraultza egin ahal izateko.

– Israelerako ariko badira ere.

– Pedido berririk ez dela egongo zabaldu duk. Ekindu duk errealitatean, bai. Artistikoki.

– Horregatik bota nautela ere zabaldu duk, ez al duk entzun?

Bidegabeko apuntea zen, ni eperako sartu nintzen fonderian, Gorkak bizi osoa eman zezakeen bertan, zer leporatu behar nion? Ikasia zen dialektikatzen matelezurra tinkatu gabe, inoren lepoa haginetan triskatu gabe. Kea nire sudurrera, ezpainak hodi luzatuz, baforearen edo lokomotoraren lurrinezko tutuaren eskapetik bezala. Horrela zigortu barkatu zidan mendekatu zen.

– Nik esango nikek inbidia diegula goragokoei.

– Neure zakatzak, Gorka! Hik ez dituk gorroto?

– Ni baino hobeto bizi dituk, gorrotoa inbidia duk.

Zinikoarena jotzen zuen, banekien, denok genekien bere ama haien eskailerak sukaldeak garbitzen ibilia zela, amorrua neurtzen ari zitzaidan. Baina orduan “Beteta laga al duk?” bromazko matxokeria hark muinean eduki zezakeen miseria azaldu zitzaidan, langilea ez zegoen harro langileen balioez, goragokoetara igo nahi zuen, alienatua bizi zen fonderian ere, borrokaren arragoan.

– Orduan, zortzigarren eguna, nola argitu behar diagu?

– Astiro, txo, astiro... Ez diat uste asteazkenera ere ailegatuak garenik.

Gorkak, nire bozkario belunaren partaide egin nahi izan nuen lagun minak, berriro zuen kopakoan busti, berriro zuen tantarik isuri gabe jaso, berriro zuen, konpasa harturik hain geometria ederrak sortzen zituen esku harekin, ezpainetara eraman ezpainetan ibili Fariasaren muturra firrilka.

– Etzakela hori egin, ostia!

Alde egin nuen, alde egin nion Gorkari, arrain-irinak fonderiako burdina-saldak pintura kolak eztainu hondarrak berrogeitaka atelierretako isuriek moldaturiko

orea zen gauean egin nuen nose in flames murgil my cranium in my hand, gure lehia alferrikakoa zen, Camparia odol, inon marrazten ez genituen emakumeak, zure artikuluak, estiloaren kezka, Izeba Aleksandra, haurrideak aldiz bakotxa bereari, edan, edan ezer ezin adosteko, horixe, gerezi zaurituaren odola kopa betean, bai, biktima guztien ordezko Mariluren hileroko aitzinatua, bakotxa bereari: igeri hadi heure odolean. Gure auzo liberatuetako zurkuluak bisitatu nituen, uste dut besoak igerian bezala nindoala ibaiondotik moilarantz zure arrastoak oro ezabatzen, ikaratu egin nituen konporten kasetaren atzealdean besarkaturik lardaskan ari ziren gaztetxoak. Esadak aurrez aurre, Marcuse, utopiak egingarria izan behar duela! Ilargi laurdena inperioaren drapoaren azpitik, kargaderoaren hezurdura alferreko eder Walco Wilco garabi erraldoi baten lepo eraitsia irudi. Gorkaren matxokerian, beteta lagatzea feminista bati egiten ahal zaion oparirik ederrena ez baldin bazen. Izutu egin ninduen pentsatzen nuenak. Mekano ugertuan goiti ekin nion, tobera moko makurreraino joanen nintzen, hantxe etzanen nintzen zure despedidan, azken topa, etorri eginen zinen, banekiela esanen nuke, jakin gabe nekien

etorriko zinela kopa bana azkazal bete biontzat, baina ni ez nintzen jadanik ni.

– Geldi hor!

Gorantz zeuzkaten noraturik metrailetak, errail bustiek beste egiten zuten distira trikornio beltzek.

– Jaitsi zaitez segituan!

Dardara batean jarri nuen kargaderoaren ferraila osoa.

– Eskuak goiti! Zer ari zinen?

Trenbideko fokuen argipera eraman ninduten metrailetaren kanoiarekin akuilaturik.

– Honek beste pankartaren bat zabaldu nahi zuen.

Arropak askarazi zizkidaten, prakak zangotan eduki ninduten karneta ikertzen zuten artean: zakurraren hotzikara erraietan.

– Neure burua bota nahi nuen trenbidera.

Egia zela pentsatu nuen, ez nintzela gezurretan ari, hitz haiek artean umotu ez zitzaidan aukera bat aitortzen zutela irudituko zitzaidan orduan noski morbozale, edo Bixarberderen mendekuren baten biktima nintzela edo Mariluk oinpean lehertzen zuela piztia, amabirjin.

Tamalgarrizko itxura eduki behar nuen, errukitu egin zitzaizkidan tiroka sakabanatzen gintuztenak.

– Hoa hemendik, ergel alaena!

Zure diktaduratik liberatuko nituen auzoetan barrena.

–9–

Itsasbeherak agerian utzi ibaiaren hondo zoragarriari ahuspeztuak geunden, “GazteArtea, zortzigarren eguna” izenarekin antolatu nahi genuen arroaren garbiketa posible izanen ote zen zalantzatzen, nola jaso genezakeen azpiak lertzopean atxikitzen zuen hainbeste tangart lehertu ohol usteldu teila puskatu lastaira herdoildu neumatiko zartatu.

– Hau dena txukunduko bagenu, arraina sartuko huke berriz.

– Garbitutakoan ahateak jarriko dizkiagu, egiten ari dituk beste leku batzuetan.

– Ikustak azpiko basatza horren kolorea, azpi horrek zianuroa ere isurtzen dik.

Zeu heldu zinen, kamerarik gabe. Oraino argi leun samarra zegoela, ordu bete beranduago hobeki hartuko zenituela.

– Kontraste bortitzak behar ditu material honek.

Bazenituela lehendik eginiko batzuk, baina ahulak zirela.

– Argi egokiagoa ez dakit, denbora gutxiago bai, ordu bete barru mareajea mugitzen hasia izango da.

Alde egin zenigun presaka behar zenuen pelikula mota erostera, herrian ez zeukaten.

– Muturtuta al zagozte?

Buruan geratu zitzaizkidan zure hitzak, arroa deitoragarriari nengoen: errealitate honek kontraste handia behar du.

– Zer esango zenukete zisne bat azalduko balitz hemen, gure ibaian gora, zisne eder bat bere lepo intelektualarekin.

– Puta, itzali gabe bota behar nian.

Petrilaren kontra zanpatu zuen ongi itzaltzeko Txurdok, ballet pose bat hartuz Rodtxenkoz beteriko basatza hartara jaurti baino lehen.

– Leherketa bat probokatzeko ere...

– Ez al duzue uste gorrotagarria izango zela?

Yate zuri bat gure txatar lupeztuaren erdian, kontrastea zen.

– Ez liokete kutsatzeko astirik emango, lepoa bihurrituko liokete kazuelarako.

Edo *Elle* ikusgarri zeukan mahaitxoa gure herriko ibaiaren hondoan.

Edo mahoizko prakak larru zuriko sofa batean.

Hirugarren eskuko zure auto gorri zarpailean iragan zinen ondotik, bozina bitan joz. Stopean gelditu

gabe sartu zinen errepide nagusian beti bezala Errenteria aldera, hantxe suntsitu zinen nire begi bistatik betirako. Buruan geratu zitzaidan kontraste bortitzean islatu beharrak ginelakoa.

– Entzuten al duzue?

Porru piper tomate gazta lapin arrautza oilasko artean ari zen xaramelaka, zangoekin marmita hutsei joka, zoro, gabardina luzea soinean, esneketarietarik harakinengana arrandegitik frutategira pozarren, gure txaloei erritmoa markatuz, txaloka jarri gintuen, zoro pozarren Bixarberde, izerdi batean, ahosoinuari katu marrakak sorraraziz desafinatu landuetan, kitarra arma harturik, akorde tiroketak, hitz lakarrak, erakutsi bat.

– Horrek zer edo zer hartu dik!

– Ez dik behar, berezkoa zaukak!

Sosen bat edo beste uzten zioten etxekoandreek berduraren aulki luzearen ertzean, irteterakoan “Gizajoa!” marmarikatzen zutela, “Doriren semea, zeinek esan!”. Berria zen interpretatzen zuena, berak sortua izan zitekeen, guk behintzat ez genion inoren tankerarik hartu, ezin esan ahalako amorruan murduskatzen

zituen esaldi haiek ez ziren euskal kantarienak. Bazeukan uste ez genuen malgutasuna, arkupeetan erakusten ez zuen alderdia ezagutu genion show hartan, bazekien mikatza sortzen ematen, zurbil blai zimelkote. Ezin izan genion debekatu gure buruari GazteArteak antolatzeko talenturik ukan ez zuen probokazio polita, aurkezpen publiko hura bazen gure gaizki esan guztien ezeztatzea ere, neuk zaukaat artea aho-eskuetan, zer uste duk Pi de la Serra.

– Kantari ikasi duk!

Bixarberdek ukondotik hartu ninduen, Gorkaren ahots beldurgarriari ez entzun eginik lagunetarik lekutu ninduen ibaiaz haraindiko atelierretarantz.

– Ez utzi idazteari!

Kasete bat atera zuen gabardinaren ezkerreko leizetik.

– Eguberrirako aterako duk, nire lehen diska.

Eskerrak eman gabe hartu nuen, hunkitua ninduken bere karrak, lehen aldia zuen niri euskaraz, orduan jabetu nintzen hitz haiek zein hizkuntzatan esanak ziren.

– Ez al didak beste hau kendu behar?

Nire koaderno frantsesa jaso zuen bere irriaren ondora. Ez, ez neukan ebatsi zidan hartara itzultzeko gogorik.

– Hobea duk erretzeko.

Kopetako tantak xukatu zituen atzamar azkazaldu harekin. Seriostu egin zen, luzatu egin zidan, behartu egin nahi ninduen.

– Ez hadila horren harroa izan!

Hobetu egin nahi nuen, sentimentalismoa gainditu, idatzia neukan guztia gertatzen zitzaidan leun ahul epel. Sorbaldan zintzilikatu zidan besoa, gauza serioei buruz hitz egiteko usadio zaharrean: denek eskegitzen zizkidaten aholkuak sorbaldako kakoan, denek ezagutzen zuten herria, denek zekiten zein zen politika zuzena.

– Ez utzi euskaraz idazteari!

– Oraindik ez nauk hasi idazten.

Harroa nintzen, bai, zer edo zertara iritsi nahi nuen. Gabardinaren lepoa jaso zuen, eguzkiak sama erre ez ziezaion.

– Putakume gehiegi zagok oraindikanen euskaldunen artean, ezin diok laga euskaraz idazteari!

Ostera ere pintaketa faxistez betea azaldua zen kostako trenaren biaduktuaren azpitik heldu zitzaigun

gero bere musika, anbulatorio berriaren ingurutik, fonderiako espaloitik zimitoriotik frontoitik nortekoaren geltokitik elizako eskaileretarik. Egun osoa eman zuen bere albuma aurkezten. Berritasun hura blues zaharra zela esan zigun Antxonek, zaharra baina pertsonala Bixarberderen bertsioan.

Erre egin behar nukeen koadernoa, Bixarberderen omenez eskerrez. Baroneneko baratzean, Silver Match batekin. Baina etxera eraman nuen, Pi de la Serraren posterra kontzertuko sarrera batekin pareta ezin zuriagoan ipinia neukan gela xumera. Zabaldu egin nuen. Testu asko notaz apainduak zeuden, osorik musikatuak, lapitzezko oharrak zeuzkaten eginak alboetan, hitz batzuk azpimarratuak, beste zenbait urratuak, galderak harridurak tarteka. Lanean aritua zen ibai hondo lupeztu haren gainean. Zabaldu ez banu ere, menturaz, ez nukeen erreko. Atzean uzten ari nintzen bizitu baten lekukoa zen, interesgarria izan zitekeen gerokoren batetik ordukoa nola sentitu nuen ikustea, gaztea nintzenekoak, intelektuala. Banekien un can morto neukala barruan, usteltzen hasia, gogoa pozoitzen zidana. Samurra zen eginahal haiek denak

ukatzea, ezer berritan abiatzea zen gaitzena, baina baneukan uste hori, gerokoren batera iritsiko nintzela, gailenduko nintzela erdikeriari, onik jalgikoetarik izanen nintzela.

Aleksandrak lehendik gaztigatua zidan moduan, grabatu egin zuen poemerdi hura, nik ezarria nion *Campari* ez baina *Irauten duen bakarra* izen hanpatuaz, hanpatua iritzi nion lehen irakurrian. Berrizko berriz entzun nuen arrebak betirako utzitako Philips 2204A recorder dotorean, zenbat ordu eman ote nituen metrika bereko beste zerik sortzeko saiotan, baina geroz txarragokoak iruditu zitzaizkidan denak, arrunt zama astuna zeukan zakur hilak.

– Letra hobea merezi dik hire musikak.

Baina ukondoa erakusten zidan, isil nendila ergelkeriarik esan gabe.

Argitaratu zuen bigarren diskan, *Bixarberde*-n, beste bertsio bat egin zuen xirula erantsiz, horrek argiago erakutsi zuen letrak ez zeukan mailakoa zela doinua, alferrik saiatu nintzela, doinuak ematen zuela kantagarritasuna, ez hitzak: entzun haizetan, mendebal aldetik, nola datorren erantzunaaa...

Kontzertua hasi aurretik Bixarberdek bi kantu joko zituela adostu genuen Pi de la Serrarekin kamerinoan

bertan, Maitaneren aginduetara festetako buruhandiak gordetzen ziren gela ilun zuritu argitu apaindu hornitu hartan, baina ez zen azaldu, ezin izan genuen lokalizatu. Nahitara egin ote zuen. Bizkaian barrena ibili zen udazkenean, ezagun samarra egin zen musikari portutarraren gabardina, Rikardok ere halaxe marraztu zuen diskaren azalean, haizeak harrotzen zuen sotana laiko hartan galdu kukutu babestu printze txipia. Mitinaurreko asko egin zituen osatu berria zeukan Blak & Baltz taldearekin, handik hona ibili zen besteren grabaketetan musikari. Baina inoizka ikusten genuelarik ezin isildua zitzaigun zer gertatzen zaiok mutil honi. Hotsa hedatu zen, ez dakit nork sortua, eritasun psikiko larria zeukala, umetako traumaren batek jaten zizkiola masailak. Artista bati, arima minbera bati zegokion gaitza zen, askok sinetsi zuten.

“Geldi hor!”.

“Jaitsi zaitez segituan!”.

Hilabete batzuk lehenago gertatu izan balitzait, tiroz josia geratuko nintzen langile eraildu kargaderoaren burdinen artean zintzilik, Marilu bezala odoletan familia solidario baten sukaldean izter zabal, izter zabal harategiko kakoan.

“Hoa hemendik, ergel alaena!”.

Zanpaketa molde berriak ari ziren antolatzen, isilak sakonak luzekoak, diru-emangarriak, guri tiroka jardun behar izan gabeko sastakai luzeak. Portuko komisaldegitik noranahi zabaltzen hasiak ziren gorotz gozoa, garunaren liberatzea ekartzen zuena surrounded by horses. Orduan asaldatu zen herria, orduan jakin zen Bixarberde xarmatzaile handiari zerk zimurtu zion arnasa gabardina beste, Barral, Maitane, Roberto bezalakoak, horses, onenetarik, horses, hondatzen hasi zirenean her hand inside their cranium. Orduan bestelako gardentasun batean positibatu zitzaizkidan zure gaueko ibiliak, kargaderora joan behar hura, portuko guarden txandak zelatatzea, bokalea Boga-Bogatik kontrolatzea txalupen joan-etorria prismatikoetan, batere artistikoak ez ziren argazki batzuk. Orduan konprenitu nuen ezer ez egiteko agindua, oker genbiltzan gure peskizetan, bazenekiten zein izan ziren gure margoen gure hitzen Marilu guztien bortxatzaileak, zuk zenekien, Manuk zekien, Bixarberderen kontzertuekin bateratsuko atentatu sail hura hasi baino lehen konprenitu nuen.

Nolabait ere, beti maite izanen zaitut.

Izoztu haiengatik.

Min eman zidan zuk ni horrela erabiliak. Agian ez nintzen inozo baliagarri bat izan, ez hori bakarrik behintzat zenbait lotan zenbait ametsetan. Baina nire rola Manuk hasiera batetik zekielako susmo zornetsu honek ematen dit minik handiena.

Gizonezkoa izan ninteke.

Dialektikak ez daki oinez.

Jausi, jaiki, jakin, damuak ez du ezer aldatuko.

Azalean Basque Country zeukan paratua, ez zuen ez Spain ez España ageri. Igorlea, Jokin Alberro, Brixton, Jebb Avenue, London, SW2 5XF. Antxonengana jo nuen zainetakoa askatu nahirik. Agure bati kataplasma ezin esplikaturik ari zen, paperean idatzi zion dena.

– Emaiozu hau zure emazteari, hark prestatuko dizu ondo.

Hiru bat emakumezko sartu ziren eztulka, usinka. Gutuna utzi nion irakurtzeko, azalduko nintzela geroago. Trenbide aldera jo nuen, desmontatzen ari ziren mineralaren kargaderoari beha geratu nintzen. Gauean indarra kenduko zuten burdinbideen gaineko zatia eraisteko, katenariak jaitsirik. Etortzea asmotu

zitzaidan. Koadernoa erretzea baino adierazkorragoa zen hura, bai, etorri eginen nintzen suntsimendu haren lekuko izatera, morbozale, gure auzo liberatuaren ikurraren hondamena.

– Larri zagok, ezta?

Baietz egin zidan Antxonek, irakurria zeukan.

– Galdeiok anaiari, Brixton hori non den, metroa edo ote daukan.

– Familiak ba al daki?

Zaila egiten zitzaidan Bixarberde familia batekin lotzea. Hiriburuko mugan bizi ziren lorategia zeukan etxe bikain batean, Dori-Enean, ezagutzen nituen, nork ez, orduan ohartu nintzen ez nuela kasik inoiz ikusi gurasoekin, ez zeukan seniderik.

– Ni ez nauk joango semearen berri ematera.

“Epaiketaren esperoan. IRAko batzuk zegoztek, abesbatza sortu diagu. Besarkada bat. Gora Euskadi Askatuta. BixarB. Neke haundia”.

Lapitzez, gorriz, dardaraka idatzia, lerroak biribilean. Metrailetak, txalupak, gurutzebikoak, lauburuak. Umetu baten lana iruditzen zait egun ere, dena handi, oker.

–10–

Laguna hausten den hilobiak leher egiteraino zurruta kanta egin litekeen mahaia izan behar luke, zer axola plastikozko lore zikin hauek dardaraka ontzi jausi zartatuaren lepoan, zer axola gure mozkorraldiaren puskailak aldare profanatu batean, zer axola du, errealitatea ez da jasangarria. Zentral termikoaren argiak xahartzen hasi aitzin zabaltzen du eguna ezkerrera ageri den Aiako Harriaren hiru gailur soslaituen ostetik, ipar zekenari babes dauka mendi magala eguzkialde, errealitatea edangarria ez delako datza gaztaro bat hemen, mesosferaren hondorainoko zuloan gordea. Harritarte guztietan goroldioa sortu zaion ontziola ondoko elizako serorak lotsakizunak ez ezik gorputz osoa zapi zuri bustiz estali balie bezala zirinek oraino ugertu ez dituzten tamaina bereko kristo errepikatu hauek, gezurrezko marmol, molde bakarreko santuginaren igeltsu jator, gurutziltzatu baino lehen seroraren senarrak garrotebilean justiziatuak irudi burua eskuin aldera makur, pintaketa politiko onartezinen tentagarri. Ondare beti eskumeneko honen atzean, gauez, hegoak jotzen duenean errazago, ume-

tan txalupen sexua ikertzen genuen kostape hartan eraiki tramankulua hodeietaraino zuzen, enborraren zementua marra horizontal zuri-gorri zabalez nabarmendua, Bretainiako farola bat bezain suntsiezina gure balentriaren lekuko.

Gurutzea, gurutzea, gurutzea, gurutzea.

Gurutzea, hilarri baten faksimilea, kristograma, zakila.

Zakila, heriotzaren luzapena hilerriko zaindari.

Lotu behar zen pankarta puska hura goi hartan oroz urrun oroz bakar, segurtasunezko langak iragan erreflektoreen azpian abiatu guarden ibiliak saihestu tximiniarainokoa labirinto metalikoan barna asmatu beheko heldulekuraino iritsi berrehun bostehun edo mila eskala igan, ez, gehiago, izterrak gogortu arterainoko guztiak. Ni naiz zure pareten idazlea. Pareta guztien idazleak ginela erakusteko, esan liteke. Xabierrek lotu zuen mezua han, eman dezagun, eman dezagun Greenpeacekoek berea baino zatiaz lehen handi gorago ausartago politikoago, bestelako asmoz arrunt. Gero, jaitsieran, zentraleko tximinia hura gantzutu zuen, zakila erraldoiaren masturbazionea. Seroraren etxe abandonatuan zain geundenok agindu egiten genion ahapetik “Uztak hori, jaitsi hadi lehenbailehen!”,

baina hantxe seguruen, tximiniako armiarma, motxilan eraman zuen bikea heldulekuetan itsasten, guztion zakilak ferekatzen, “Atxilotzen badute!”, Gorkak orduan “Atxilotzen badute berdin duk, ekintza egina zagok!”, Txurdok, eman dezagun Txurdok esan zuela “Baina torturatu egingo ditek!”, zelako kezka, “Lasai, horretarako gaudek berarekin, torturatzen badute beste izen batzuk ez emateko, amolai!” Gorkak, inork baino hobeki ezagutuko balu bezala, inork ez bageneki bezala futbolean egiten zituen kontaktuez, inork ez bageneki bezala gure izenak emanen zituela, ez ginela ezer, ez ginela ezer momentu politiko hartan, zer zen ekintza huraxe, ikusgarri bat biharamunean portualde osoan goi hartarik zintzilik, haizerik ez, irakurgarri, gure dazibao harroa, goizaren okupazioa, kirola eman dezagun, zer, zer Teherango gazteek urkamenditik zintzilikatu behar zutenean eztitasunez dantzatu ahal izateko. Bilbon Bartzelonan Bordelen aldarri hura hurrengo hilabeteetan, ezin konta ahala afixa eskualdeko herrietan, Aleksandrak banatu zituen argazki ederretan. Irakurketa egin liteke garai hartako gure argazkiekin, zentral termikoko pankarta leiho tirokatuak zimitorioko muralak ibaiaren hondoko tresneria

kargadero zaharra gure aurpegi kopetazimur alegera haiek, gure gorputz egarri haiek.

Zaunka erraietan.

I not believe in yesterday.

Ababorreko argiak tindatu itsasoaren barruan zoratzen.

Beherago, zuhaitzek ezkutatzen ziguten badian Senekozulua baforeak koadranteko kaian atrakatzen ari behar zuen portuko zikinkeria guztiak hamar miliako urrunean hustu ondoren. Kantari hasi ziren denak, kantari hasi ginela denok esan behar nuke, Gorka, Xabier bera, Txurdo, neskak, zenbat neska hemen ere, oraintasun batean gure belaunaldia, inozoa sentibera koldarra, bihotz onekoa, nirea, zurea, zer egiten diat nik malkotan.

Paretak zuri nonahi.

Aldiro galtzen dut birjintasuna.

Adintasunera ez iristea da helburua.

Hego haizeak Larrun mendia erakusten zigula ekialdeko zokoan zentraleko linearen kableen artetik, lehengusuak magnetofoiari sakaturik *Irauten duen bakarra* entzuten hasi ginelarik drapoa ezin bereizi genion petrolero handiari so geratu ginen, brankaz jartzeko egiten ari zen maniobrak epaitzen, horrek la-

gundu zigun kantari jarraitu ahal izateko. Musika hark erasan egiten zuen, han zeuden, han zituen zimitorioan loto jarrera harturik doinu higuingarrienak jotzeari ekiten zionean inguru biltzen zitzaizkion neska guztiak, lore bana eskuan gu nardatzeko izorratzeko ahulagotzeko.

Zementuzko zakil erraldoi hura gurutzeen gainetik.

Gazterik hil gintuzten guztion aldarri.

Zakil bat ketan, zakur bana ginen.

Gure lehen hilobiratze ofiziala izan zen, gure belaunaldiaren aurreneko biktima, askatasun artistikoaren sinboloa, bizitza molde berri posibleen aurreneko esploratzailea. Heroi bat genuen, ez zegoen ukatzerik, ez portuak ez fonderiak eman ziguten espero genien gazteon gorazarre publikoaren gai izanen zen zerraldo martiria, Gorkak Xabierrek Garbiñek Txurdok lanak edukiko zituzten onartzen. Gorpuaren jabetza kolektiboa dekretatu zen han, Luisek ez zuen aitagurerik abiatu, dena GazteArtearen jaialdia izan zen. Itxurakeria zela hura, zerraldoa hutsik zegoela, Londonen geratua zela Bixarberderen gorpua.

Ni neu aldendu nintzen orduan, bazter batetik filosofatu nahi duen bele gurutzeren baten besoan, aita

ehortzi genueneko korroka huraxe harritxintxarretan, huraxe burura, ez dakit non zauden aita, zaude, Bixarberde iluneneko putzuan zegoen engoitik, neure burua kendu nahi nuen zeremonia infantil despedida hunkigarritik zamagabe, gertatu mingarri haietarik urrundu, Aleksandra nire akordura ekar zezakeen demendrenetik eten, haren aztarnak ezabatu gure auzo liberatu guztietan.

Gure paretek bidea zabaldu zuten.

Egia ez da metafisikoa.

Zalantzak dauzkat, banaiz.

Multzo bat zegoen bide bazterreko auto ilararen ondoan pipatzen, gizonezkoak, gazteak helduekin nahaste. Ondotik pasatu nintzen herri aldera adio eginez. Dodge-Dart ederrari beha geratu nintzen pauso batzuetara.

– Hirea al duk?

Hurbiltzeko eskubiderik ez baneuka bezala.

– Txatartuta ederra geratuko huke, eskultura hutsa.

Ikustekoa zen hura gure herrian barrena igande eguerditan, Alberro senar-emazteak Donostiako eliza-

ren batean meza nagusia entzun ondoren etxeratzen zirelarik, desfilatu egiten zuen izarniadura hark. Yate bat ematen zuen antena luze harekin.

– Semea lurperatu dik oraintxe.

– Bera ere lurperatzen dugun!

Askotan topatu izan genuen, arratsaldeko bakailao deskarga amaitutakoan arrantzako kaialdean garagardo batzuk hartzen genbiltzala azaltzen zen bera kirol poltsa bizkarrean boxeo gimnasioan izerditzera, eztabaidaren batean sarturik laguntzen genion tabernen espaloi zabalean barrena Boxing Cluberaino. Mendiko laguna genuen, bide guztiak ezagutzen zituen, lesakarra zen sortzez. Maoista, aberriaren etsai bat.

– Baldintza txarrak, kamarada.

Orri bat luzatu zidan.

– Baldintzak aldatzen ahal dituk. Hiru hilabete pagatu gabe utzi gaitik kalean urdakume horrek. Gutako bat zagok hor barruan, irteeran orriak banatzeko.

GazteArtean deitoratzen genituen esloganak zeuzkan, “Itxiera patronalari ez!”, “Despidorik ez!”, “Denok bat borrokan!”, beste askolako orria zen. Alberro jauna nonahiko patronalaren eredu jatorra zen, ausardian oinarrituriko biografia zeukan, enprendedorea esaten zioten haietarikoa, ekin handikoa.

– Ez alferrik gastatu pintura.

– Bizarra utzi behar al duk hik ere?

– Ekarri al dituk guanteak?

“Lapurra” ari ziren margotzen spray zuriz Dodge-Dartaren albo bietako beiraduran.

– Etxeratzen delarikan pintaketa gehiago ikusiko dik.

– Txofer berria ekarri dik.

– Bai, larruzko zamarra beltza daramana.

Bizion oinok hilerritik, dozenaka urrats oroitzapenak ezin oinperatuz, bazetozen bizion oinok bele samaldaren karranka.

Aleksandra ez, hura ez zen azalduko.

Etorri izan balitz, eginen ote niokeen hitzik?

Pankarta bat hedatu zuten, alderik alde hartu zuten bidea mendia ilunabarra langile azpikotu haiek. Zigarroak jaurti zituzten denek, ugazabaren indarraren aurka ukabilka lotzeko prest, biluztasun politikoaren edertasuna, zapaltzen zituzten ilintiak baino egoskorragoko herrijendearena.

– Lángileók ez gará merkántziá!

Bertan geratu nintzen, afixetan argazkitan albistetan betikotu ez zituzten langile barrubako haien ondoan paketeko azken Stuyvesanta suturik, borrokan

ohitu gabea, eskuak ahul, bulegoetako epelak bertan utzirik sugearena eginik grebarako gomita egitera etortzen zitzaizkigun beheko fresadoreekin pulidoreekin labezainekin batu nintzen, gure oroimen sozialaren hondoan iltzatu zitzaizkidan oihu haien erritmo primarioak bildua, filologoek jasoko ez zuten ahozkotasun noblea dastatzen.

Ikara elektriko bat bizkarrezurrean goiti.

Gure esku ahulak patronalaren muturrerako.

Gure gorputz irakinak zelula ikaratuz beterik.

– Horrek itxura baizik ez zaukak, dirurik edukiko balu ez huken horrelako gurdi zatarrean ibiliko.

– Beste lantegi bat ireki nahi dik Burgosen gure makinariarekin. Ofizial batzuk zagoztek han muntatzen.

Dimentsio jasoagoa ematen zioten Bixarberderen ehorzketari pankartak, oihuek, musikan biziko zela erabaki zuen egun hartarik sartu ez zen Dodge-Dart hondojoak. Zerraldo hartan egon edo Londongo morgeren batean, lortua zuen zegokion klaseari ihes egitea. Garai bat abiatzen zuen gure lagun gorrotatu miretsiaren heriotzak.

Nolakoa ote naiz ni, Aleksandraz geroztikako bizirauna?

Egin ahal izan ote nion ihes ezeri?

Jendea burumakur iragan zen pankartari behatzeko lotsaturik, zeremoniaren akordu gozomina ozpinduko zuten oihuak deitoratuz hasieran, gero zer gertatzen zen zer egin behar zuten ez zekitela irain mehatxu zarpatikoratze kalapita hartan.

– Zuek hil duzue! Zuek hil duzue!

– Fernando, mesedez!

Orriak pankarta ostetik gorantz hegatzen trufagarrizko malutak lurreratzeko Fernando Alberro jaunaren Dori Salaberria emaztearen buru lepo arropa ilunetan, hartzen du idatzi amorragarri haietarik bat, langileok, langileok idatzi baino ez dute egiten orain, lana egingo balute, besterik ez daukagu, irakurri ez, ikusi egin zuen, paperak dardara egin du esku hartan zelulek gure gorputzetan bezala, mazpildu egin du hitzak lauskitu beharrez, pausoa oihuka jarraitzen zutenengana, guregana, handik, pauso hartarik askatu behar izan du bere kolera burgesa semeaz atzendurik.

– Honek, honek manipulatzen zaituzte!

Euzkadiren etsai guztiongana atzamarra luzatuz, haragijale baldresa.

– Honi pagatu egiten diote!

Zamarra beltzekoa Dodge-Dartaren barruan zegoen jesarria, kordoi kizkurtuko mikro batetik hizketan, yate guztiek daukate.

– Txoferra irratiz ari duk.

Beste hiru pauso, ausardia kemena bularra, begiak malkotan erantsi zion atzaparra pankartari patroi. Makur laga zuen bernazakian hartutako ostikoak, algara nork edo nork nire ondoan, ez luze, zer izan zen hura, tiroak, kukutu egin ginen bata bestearen gerizan, hautsa sudurretara.

Elkar biluzterainoko borroka.

Ikara elektriko bat bizkarrezurrean beheiti.

Lagunekin edan, edan, dena esan dena isiltzeko.

Erorketa baten kontua aipatu zuten, txalupa abandonatu bat, metrailatze bat gauez kostan, Grankanto parean. Inork ez zuen txaluparik ikusi, Aleksandra lekutua zen herritik, zaila genuen jakitea zer, agian emakumea bihurtua zen, besterik gabeko emakumea.

Gure haragi etzanaren magmara noratu zuen gero, esku biak burdinan, beldurgarrizko euskara gardenean.

– Denak hortxe geldi!

Amesgaiztotan izerditzen zen seroraren izara inpudiko haiek urratu, zango-besoak eten, gurutzetik

jalgi, uretan oinez bezain airoso egin zuen lasai gorpuen gainetiko kristo bat hurbildu zitzaion une hartan.

– Lurrera! Lurrera!

Gorka altxatu zen ondoren.

– Kontuz, Luis! Etzan hadi! Luis!

Jainkoari defini zedila eskatzeko bidoira igo zenean bezain lasai jarraitu zuen armari buruz izerdi bereko lagunaren oihuari gor.

Idealik ez, utopia bai.

Iraultza ezin da programatu.

Egun bakoitzak dakar bere zeregina.

Isiltasun sorra hedatu zen han anbulantzia urrundu zelarik Luis bere odolaren gainean zuriz gora flotatzen zeramala Gorkari eskua emanik. Bilduak zituen kaskillo biak sasitza batean botatzen ikusi nuen Garbiñe, beste horrenbeste egin nuen nire alokairu erdiko giltzekin, ez hark bezain kontuz baina, zer gerta ere amak kopia bana eskatua zidan. Ongi gordeko zituela berak, zer gerta ere.

Froga ezazu badela bizitza bat hil aurretik.

Birjintasuna ez da inoiz galtzen.

Errealitate hau ez liteke kantagarria izan.

Panfleto zapalduak, Dodge-Dart harrogabetua, aginduka inguratzen gintuzten guardia zibilak, dena

iruditu zitzaidan eldarnio hutsa, ez zela deus gertatu, gure aitzindaria Londonen zegoela bere hirugarren diska grabatzen, gure buruen gainetik amore leunean iragaiten zen hirurogei mila volten marrumak ez ninduela zorabiatu luze gabe lehertu behar zuen sargoriaren morse etenezinean.

Bizitza okupatzeko ahalegin hura.

Ezin zezatela inoiz gure lana merkantzia bihur.

Mariluren obuluak munduko edari guztiak odoltzen.